

Kontzeju

www.õnati.eus



Berbia Õnati



@Berbiaõnati



õnatiina



Õnati Irratib

Õnati Udalerdiakaria | 2017ko iraila | 275. zenbakia



DEGIK



HEMEN DA KILOMETROAK

Irailaren 24an ospatuko da ikastolen eta euskararen jai handia Oñatin, ekintzaz betetako urtea borobilduz



LEKAIKOKA!
KILOMETROAK 2017 OÑATI



1 IKASTOLA 2 SAN MARTIN 3 ASENTZIO 4 BEREZAO

Kontzeju 1 2

Dena prest irailaren 24rako **KILOMETROAK**²⁰¹⁷

Ikastolen eta euskararen jai handia ospatuko da Oñatin, Txantxiku ikastolak antolatuta. Milaka euskaltzale batuko dira 5,8km.-ko ibilbidean



EZKONTZETAN

Etxe-Aundi
Kokatu Zurea

2017 urtean

Informazio gehiago,

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com



IBILBIDEA

5,8 kilometro eta 4 gune nagusi ditu zirkuituak ondoko irudiak erakusten duen moduan.

1. HERRIKO PLAZA ETA IKASTOLA INGURUAK

Herriko plaza inguruan egongo da ibilbideko gune nagusia. Frontoian umei zuzendutako ekintzak egongo dira, eta plazan adin guztietarako kontzertu eta ekintzak.

2. SAN MARTIN

'Haurren Hiria' izendatu duten gune honetan, gaztetxoendako 'Natura Abentura' parkea egongo da, besteak beste. Artzain txakurren txapelketa ikusteko aukera ere egongo da goizean zehar.

3. ASENTZIO

Asentzio ermita ingurua batez ere gazteei zuzendutako gunea izango da. kontzertu ugariekin.

4. BEREZAO

Santa Lutzia-Berezaoko parkeak hartuko du lau garren gunea. Gazte taldeen arteko Erronkaren finala jokatu da bertan, eta kontzertu ugari ere egongo da han.

EROSKIko aparkalekuan euskal kulturgintzako eta artisaugintzako postuak egongo dira egun osoan.

» **MIKEL EGIBAR** / Ikastolen elkarteko koordinatzaile iraunkorra

Trafiko kontuak ondo bideratzen baditugu, festa borobila izango da”

Bi aste baino ez dira geratzen Kilometroak 2017 jaia ospatzeko. Prest al dago dena?

Aurrena esan nahi nuke urtea oso dinamikoa eta parte hartzailea izan dela. Askotariko ekitaldiak burutu dira, jende asko ibili da ekitaldiak antolatzen, eta materiala nahiz errifak saltzen (1.000 pertsona inguru), eta eskerrak eman nahi nizkieke guztiei.

Orain, dagoneko azken txanpan sartuta gaude, eta ia dena prest dago, bai.

Ia 6 kilometroko ibilbidea prestatu duzue. Zer iruditzen?

Oñati herri zoragarria iruditzen zait, eta honelako marko batean halako zirkuitua antolatu ahal izatea, ederra da benetan. Polita izateaz gain, irisgarritasun irizpideak ere betetzen ditu, eta trafiko aldetik dauden zailtasunak ondo bideratzen baditugu, ziur nago festa borobila izango dela.

Trena alde batera utzi eta autobusez etortzeko deia luzatu duzue. Zergatik?

Bai. Gure filosofiaren kontra doan erabakia da, baina ezinbestean hartu behar izan dugu. Trenkada bakoitzak mila pertsona ekarriko luke Zumarraga aldera, orduerdi, eta ez dago horiek guztiak Oñatira ekartzeko nahikoa autobusik. Kolapso handia sortuko

San Prudentziotik bideratuko dugu trafikoa (Legazpitik Oñatirako bidea itxita egongo da). Beraz, trena alde batera utzi eta autobusez etortzeko gomendioa luzatu nahi diogu jendeari

litzateke. Beraz, Legazpitik Oñatira etortzeko bidea itxi, eta San Prudentziotik bideratuko dugu trafikoa. Hainbat aparkaleku egongo da Oñati eta San Prudentzio artean, eta autobus lanzaderak ibiliko dira jendea herrira gerturatzen.

Beraz, ahal den neurrian, herriz herri antolatuko diren autobusetan etortzeko gomendioa luzatzen diogu jendeari.

Mezu berezirik?

Azpitarratu nahiko nuke, guk jende guztia gonbidatzen dugula Kilometroak festara, baina, bereziki, bere burua, aldamenekoa eta ingurua zaintzen dakiena. Jendeak ondo pasatzea nahi dugu, baina errespetuz beti ere.



Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaioterri San Miguel Ugarte

MAPFRE
ORATI



TRAFIKOAREKIN lotutako oharrak herritarrentzat

IRAILAREN 24an AUTORIK GABE GELDITU BEHARREKO KALEAK

- Bidebarrieta kalea
- Martzelino Zelaia kalea
- Etxebarrialde baseritik anbulategirainoko aparkalekuak
- Anbulategi gaineko parkina
- Kiroldegi pareko aparkalekuak
- Kiroldegiko lur azpiko parkina

ORDEZKO APARKALEKUAK

Goian aipatutako kaleetatik autoa kendu behar duten herritarrek ondorengo aparkalekuak erabili ahal izango dituzte:

- Berezaio inguruko aparkalekuak (kotxea ezingo da mugitu egun osoan, zirkuitua bertatik pasatzen delako).
- Kalegoienako lur azpiko parkina librea izango da egun osoan.
- MU-Enpresagintzako parkin pribatua

HERRIKO IRTEERAK

- San Martingo zubia trafikoarentzat itxita egongo da. Ugarkalde, Olakua, San Lorentzo, Euskadi etorbidea, Errekalde aldeko bizilagunek Udanatik izango dute herriko irteera.
- Kasablanka, Kale Zaharra eta herriko behe aldeko bizilagunek San Prudentzio aldetik izango dute herriko irteera.

GOMENDIO OROKORRAK

» **Autoa ahalik eta gutxien erabiltzea egun horretan**

» **Garajea dutenek bertan sar dezatela autoa**

GIROTZE EKITALDIAK

Hitzaldi-solasaldia

Alkohol eta drogen kontsumo arduratsuari buruzko hitzaldi-solasaldia egongo da irailaren 13an (17:30) Gaztelekuko Kuboan. AGI-PAD elkarteko adituek gidatuko dute ekitaldia, eta guraso nahiz herritar guztiak daude gonbidatuta.

ERREALA-OSASUNA

emakumezkoen

Futol partidua

Irailaren 15ean, ostirala, Erreal eta Osasunako emakumezko taldeen arteko futbol partidua jokatuko da Azkoagainen, 19:00etan.



EGITARAU OPAROA

Ondoko orriko taulan ikus daitekeen moduan, egitarau oparoa prestatu dute Kilo-metroak egunerako. Aipatzekoa da, Oñatiko Olaiturri kultur elkarteak hiru antzezlan eskainiko dituela egunean zehar.

UDANA ITXITA EGONGO DA Legazpitik Oñatira etortzeko



Irailaren 24an Oñatira gerturatuko diren euskaltzaleek San Prudentziotik etorri beharko dute. Hainbat aparkaleku egokituko dira Zubillagatik herrigunera bitartean, eta autobus zerbitzu bereziak egongo dira jendea zirkuituraino ekartzeko.



M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERRAK, LUR FLOKATEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DI SEINATZAILLE ETA MONTATZAILER

SERBIZIOAK, KONSUMO eta ASKEZ GELUGA

ORLAINA 12 B 4 esk. - 20080 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



BAZKARIA KIROLDEGIAN
 Zubioa kiroldegian 1.200 lagunentzako bazkariak emango dira, 12:30etatik 15:30etara. Helduen menuan 15€ eta haurrenak 8€.

OLAITTURRIren ANTZERKIAK
 Oñatiko Olaitturri kultur elkarteak hiru antzezlan eskainiko ditu aldi berean Zumeltzezin, Unibertsitatean eta Lazarragan, 12:00etan, 13:00etan eta 15:30etan

IBILBIDEAN ZEHAR
 Kilometroetako zirkuituan zehar ibiliko dira: joareak, dultzaineroak, trikitilariak, Ttek eta Sakatu elektrotzarangak, EH Batukada feminista, Kalejira perkusioa...



Arantzazuko Ama



San Martin

ZATOZ INFORMATZERA!!



Adosatuak Kurtzekua



Kurtzekua

italde www.italde.com Ramon Irizar kalea T. 943 78 27 07

Boluntario baten ibilerak

- » Gregorio Garitaonandia 'Borda'ren ETAko militantzia urteak (1971-1977) jaso ditu Ander Lizarraldekin liburu batean
- » Irailaren 20 inguruan jarriko dute salgai Arranon eta Altuna estankotan

Gregorio Garitaonandia Arrillaga (Oñati, 1953) ETA politiko militarreko kide izan zen 1970eko hamarkadan, eta garai hartako ibilerak eta bizipenak bildu ditu Ander Lizarraldekin *Boluntario baten ibilerak, eta beste* liburuan.

San Prudentzioko Elorregi Goiti baserrian sortua, 18 urte zituela erabaki zuen Gregoriok ETAn sartzea. Artean urte gutxiko ibilbidea zuen erakunde klandestino abertzaleak erakarpin indar handia zeukan, eta beste gazte askok bezala, borroka harekin bat egiteko erabakia hartu zuen Gregoriok. Bere kabuz joan zen iparraldera, eta 'Sanpru' ezizenarekin sartu zen erakundearen.

Propagandarekin lotutako ekintzetan parte hartu zuen hasierako urteetan: ikurrinak jarri, pintadak egin, panfletoak banatu... Felix Umeretz zena izaten zuen laguntzaile zeregin horietan; multikopista eta fotokopiadora bana lapurtuta, tailertxo bat jarri zuten hutsik zegoen baserri batean.

1974an liberatu legal gisa aritzeko proposamena luzatu

zion erakundeak, eta 1975eko urtarrilean, *Edertu* altzari fabrikari zeukan lana utzi eta guztiz liberatu zen. Erakundearen bere gaitetik zegoen Juan Migel Goiburu 'Goierri'k ezizena aldatu zion, *Sanpru*-k pista asko ematen zituelako, eta *Borda* bezala berbatatu zuen.

DINAMITA LAPURRETA

1975ean iritsi zen Bordaren aurreneko ekintza sonatua. Beste sei lagunekin batera (tartean zen gerora fusilatuta hilko zuten Juan Paredes 'Txiki') 1.400 kilo dinamita lapurtu zituzten Itziarren eraikitzen ari ziren industriagune batetik. Gregorioren baserri inguruan zeuden minazulo zahar batzuetan gorde zuten.

Handik gutxira, Bordaren arduraduna (Goierri) atxilotu zuten, eta, badaezpada, iparraldera ihes egin behar



izan zuen Gregoriok.

LOBO "TRAIDOREA" REKIN
Iparraldean zegoela, Mikel Lejarza 'Lobo' (erakundearen Gorka ezizenez jardun zuen) poliziak ETAn infiltratutako



OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behea, esk. / Tel.: 732 733 712
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

EKINTZA SONATUA

1.400 kilo dinamita lapurtu zituzten sei lagunen artean Itziazarren, 1975ean

ARGELIAKO KANPALEKUAN

1976an hilabetez egon zen Argelian, prestakuntza militarra jasotzen

gizona ezagutu zuen Bordak, eta liburuan azaltzen du nola sartu zen erakundean, eta nola prestatu zuen traizioa 'Lobok'.

1975eko udan Bartzelonara joateko proposamena jaso zuen Bordak, 'Lobo' eta 'Txiki'ekin batera. Handik Zumarragara joan zen Gregorio, bertako bi talderen arduraduna baitzen.

Baina handik gutxira gauzatu zen 'Lobo'ren traizioa (ehunka atxiloketa, hilketak...) eta berriz ere iparraldera joan behar izan zuen Bordak, 15 bat egunez Araotzeko baserri batean gordeta egon ostean, liburuan azaltzen duenez.

ARGELIAKO ENTRENALDIA ETA 'TXIRRITA'REN HERIOTZA

1976ko otsailean Argeliara joan zen Gregorio, ETApM-ko 15 bat kiderekin batera, prestakuntza militarra jasotzera, eta handik bueltan hegoaldera pasatzeko proposamena jaso zuen, 'Tala' eta 'Txirrita'ekin batera.

Muga nola zeharkatu ohi (jarraitzen du)

GREGORIO GARITAONANDIA 'Borda'**“Momentuko egoera politiko, sozial, eta kulturalari erantzun beharra zegoelako sartu nintzen erakundean”**

18 urte zenituela erabaki zenuen ETAn sartzea. Zerk bultzatuta?

Burgoseko prozesuaren garaia zen. ETAk Alemaniako kontsula bahitua zuen, eta indar polizialen presioa ikaragarria zen. Egoera horretan, kontrol batean gelditu ninduten Maltzagan, eta han jasotako tratu umiliagarriak markatu egin ninduen.

Bestalde, langileria-protosten aurrean poliziak ematen zuen erantzun bortitzak erantzuna behar zuela iruditzen zaitzaidan. Eta, bestetik, inmigrazio-olde masibo eta intentzionalaren ondorioz, gure hizkuntza eta kultura arriskuan ikusten nituen.

Horiek izan ziren kontzientzia mugiarazi zidaten arrazoiak, eta horiei erantzuteko erabaki nuen erakundean sartzea.

Zazpi urteko militantzia aldian, zure inguruko hainbat kide hil ziren. Zuk “zortea” izan omen zenuen?

Neurri handi batean bai, zortea izan nuen, eta, bestetik, klandestinitatea ondo mantentzen jakin nuen.

Jose Bidaola 'Txirrita'ren heriotzak markatu zintuen bereziki, liburuan diozunez.

Bai. Neu nintzen talde hartako arduraduna eta gaur egun ere oraindik pena handia ematen dit. Ustekabe bat izan genuen muga zeharkatzeko garaian, eta atzera egin ordez, aurrera egitea erabaki genuen, eta Etxalarren goardia zibilak genituen zain. Tiroketaren



Borda, gaztetako irudian

ondorioz zauritu eta atzeman egin zuten Txirrita, eta handik hilabetera agertu zen bere gorpua leku berean.

J. Ramon Martinez 'Montxo'ren heriotzak ere sakon mindu ninduen. Ondo eza gutzen genuen elkar, berarekin bizi izan nintzen iparraldean, eta Madril hil zuten, 'Lobo'ekin batera zegoela pisu batean.

Zeuk ere ezagutu zenuen 'Lobo', poliziak ETAn infiltratutako gizona. Susmo txarra hartu omen zenion hasieratik.

Bai. *Txulo* samarra zen, eta beti galdezka zebilen. Inork ez zekien non bizi zen, baina bera beti etortzen zen gure etxeetara iparraldean geundela.

1975eko uztailan iparraldetik Bartzelonara joan ginen, Lobo, Juan Paredes 'Txiki' eta ni neu. Handik nora ote nindoan galde-tu zidan Lobok; *“A tí qué hostias te importa”* erantzun nion. Eskerrak. Handik gutxira gertatu zen ETaren aurkako sarekadarik handiena.

1977an erakundea uztea erabaki zenuen ETApM-ren zatiketaren ostean. Arazorik izan al zenuen irteteko?

Ez. Kide batzuek eskatu zidaten jarraitzeko, lastima zela uztea, baina erabakia hartuta neukan. Badeazpada, prebentzio nueri gisa iparraldean egon nintzen denbora batez, Talde Bereziak berrantolatatu arte, eta gero etorri nintzen hegoaldera.

fontanería y calefacción

BELOKI

> Iturgintzako material salmenta

> Komun eta sukaldeetako erreformak

> Rzuzejoen salmenta

> Kalefazioa eta aire girotua

> Diseinua, dekorazioa eta opariak

> Obren koordinazioa

Bakardadeko Ama 11 • Tel.: 678 46 54 58 • OÑATI

etxebizitza osatzeko
behar duzun guztia

zuten ere kontaktzen du liburuan. Zoritxarrez, oraingoan gaizki atera zitzairen. Mugalariak orkatila bihurritu zuen eta berandu iritsi ziren Donostiara eraman behar zituen kotxea zegoen lekura. Oinez jarraitzea erabaki zuten, baina Lizarrietan (Nafarroa) zain zeuden guardia-bilak, eta tiroketa baten ondoren, mugalaria eta Txirrita zauritu zituzten hankan. Bordak eta Talak Sarara iristea lortu zuten. Txirritaren gorpua handik hilabetera agertu zen, desagertuta egon ostean (ez zen eman haren atxiloketaren berri). Ander Lizarralde berak argitaratu zuen iazko ekainean Txirritaren heriotzaren inguruko txostena (*Txirrita, 40 urte*).

BAHIKETA AHALEGINAK

Handik bi hilabetera, Bartzelonara joan zen berriz ere Borda, enpresagizon frankista ezagun baten bahiketa prestatzeko asmoz. Trukean 20-30 preso libratzea eskatu nahi zuten.

Zaintza lanak egin zituen Bordak, eta ia dena prest zutenean, bertan behera utzi behar izan zuten, 'Pertur' desagertu zelako, eta honek bahiketaren asmoen berri zeukalako.

Gero, Donostian ere egon zen Gregorio, bahiketa baterako zaintza lanetan, baina hau ere bertan behera geratu zen, taldekide baten atxikoketaren ondorioz, eta iparraldera alde egin zuen Bordak babes bila.

KONFINAMENTUA ETA MILITANTZIAREN AMAIERA

Gutxi iraun zuen iparraldeko

ANDER LIZARRALDE / liburuaren egilea



“Gai hau gehiegi juzkatu eta gutxiegi ulertu dela uste dut”

Zerk eraman zaitu Borda-ren militantzia urteak liburu batean jasotzera?

Gaztetxekoon aittaita zen Xolonpok aurkeztu zidan Borda orain dela urte batzuk eta elkar ezagutzen hasi ginen. Bere militantziari buruz hizketaldiak izaten genituen eta momentu batean papelean jartzea erabaki genuen. Haizeak eraman baino lehen

Zerk eman dizu atentzioa?

Atentzioa eman dit zein gazteak ziren etakideak. Baina hala ere ez zebiltzan jolasean, ondorio oso gogorak zituzten zain. 1936ko altxamendua, ondorengo diktadura, ETaren hasiera, errepresioa,

armen agerpena. Eskalada bat gertatu zen orduan. Gai hau gehiegi juzkatu eta gutxiegi ulertu dela uste dut

Bordaren bizipenak kontatzeaz gain, material bibliografiko ugari erabili duzu liburua osatzeko, eta zeure iritzia ere eman duzu gai ezberdinen inguruan.

Bordaren ibilbidearekin batera Oñatiko errepresio eta erasoen historia jaso nahi izan dut eta horretarako zita dexente erabili ditut. Horrez gain, munduaren martxa okerrari buruzko nire iritziak sartu ditut. Emaitza, ezohiko nahaskila bat. Interesgarria izatea espero!



babesak. Urte bereko urrian atxilotu zuten, (hiru hilabetezko gartzela zigorra jaso zuen armak edukitzeagatik), eta Yeu-ko irlan konfinatu zuten, beste hamahiru kiderekin batera.

1977ko otsailean utzi zituzten aske, Euskal Herrian bizitzeko debekuarekin. Baionatik hurbil dagoen *Ondrés* herrix-

Yeu-ko irlako konfinamentutik aske utzi zituzten unea. Borda ikurriñarekin agiri da gendarmeen atzean. Aurretik, 'Argala' eta Eloi Uriarte historikoak daude, besteak beste.

kan jarri zen bizitzen Gregorio.

Handik gutxira ETApn eta Berezien arteko zatiketa gertatu zen. ETAm-rekin bat egitea erabaki zuten Berezietao kide batzuek. Gregoriok ere parte hartu zuen asanblada hartan, baina ez zitzaion egokia iruditu erabakia hartzeko modua, eta militantzia uztea erabaki zuen. Ondrés-en bizitzen jarraitu zuen, harik eta amnistiarekin hegoaldera itzultzeko aukera izan zuen arte.

Zazpi urteko militantziaren laburpena baino ez da hau. Azalpen eta xehetasun gehiago nahi duenak liburuan aurkituko ditu. Irailaren 20tik aurrera egongo da salgai Arrano tabernan eta Altuna estankoa.

EGUR-LAN
 AROZTEGIA
 LIMABAR S.A.,L.
 BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
 TEL./ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
 www.egur-lan.es

smk
 san miguel kooperatiba
 943 781 217
 kale barria 8 - 20560 oñati
 www.sanmiguel.coop

ORAIN ETA HEMEN. MINDFULNESS ELKAR HEZIN.

Elkar Heziko hezitzaileok badakigu Mindfulness-aren praktika irakastea, ikasleei “opari” bat egitea dela. Hezkuntza, pazientzia, lasaitasun eta moteltasun eredu baten behar-rean dago. Abiadurak zentzua galtzera eramaten gaitu. Azkar goazenean, paisaiak ezin dugu gozatu. Abiaduraren eraginez pentsatzea zaila egiten zaigu, gauza desberdinetan sakontzeko astirik ez dugu eta automaten eran jokatzeko arriskuan jartzen dugu geure burua.

Mindfulness edo “arreta osoa” zera da, meditazioa praktikatzeko modu bat. Meditatzeko ikasteak, arreta galtzera eramaten gaituzten kanpoko faktoreak gutxi-tzeko balio digu eta era berean barruan ditugun zurrumbiloez ohartzeko tresna batez jabetzen gara. Mindfulness-aren praktikak ez ditu berez arazoak konpontzen, presentzia osoz bizitzen laguntzen digu, gure arretarekin gertatzen diren gauza guztietan presente egoten, hain zuzen ere.

Arreta kontzientea horixe da, eguneroko bizitzan gure buruak nola funtzionatzen duen konturatzeko eta gure pentsamenduek eta sentimenduek gure erreakzioetan duten garrantziaz ohartzeko; gure erreakzioek eta jokaerak bizkar gainean eramaten dugun zamaren pisua zehazten dutelako.

Mindfulness-aren praktikarekin arreta, jakintza eta balioen dimentsioak lantzen ditugu, horren bitartez gure ikasleek trebetasun akademikoak, sozialak eta emozionalak era orekatu batean landuko dituztela ulertzen dugulako. Arreta kontzientearen entrenamenduarekin gure ikasleek bizitzarako



Mandalak margotzea, mantrak abestea, arnasketari zein emozioei arreta...askotarikoak dira egiten ditugun dinamikak

tresna oso baliagarria eskuratzen dute, Mindfulness-ak gauzak era argiago batean ikusten laguntzen duelako. Eta gauzak argi ikusteak Mindfulness-ak eskaini dezakeen oparirik handiena da. Gure barnean eta kanpoan gertatzen dena argi ikusteak eta horren aurrean gure erreakzioa kudeatzeko gaitasuna lantzeak, buruko bakea izatera bideratzen gaitu.

Horretarako, arnasketak duen papera ulertzea ezinbestekoa da. Era kontziente batean arnasa hartzeak geratzeko tarteak ematen digu. Geratzearen ondorioz espazio bat sortzen dugu, konektatzeko espazioa, sentitzen dugun horrekin sintonizatzeko espazioa edo tokia, gure gorputzeko erreakzioez jabetzeko. Arnasketa munduko gauzarik naturalena da. Pentsatu gabe burutzen dugun prozesua da arnasketa, baina bere botereaz konturatzeko garen estresa modu eraginkorragoan kudeatu dezakegula ondorioztatzen dugu eta horrek zoriontsuago izatera eramaten gaitu.



Guk egin dugu gure aukera,
ELKAR HEZI.
 gin zeurea orain.

Zatoz gu ezagutzera
 Bakarkako bisitak egiteko edota informazio gehiago eskatzeko: 943718272.

www.elkarhezi.eus

Haurtzaindegia, HH eta LH: Arantzazuko ama 18. 943 71 82 72

DBH eta Batxilergoa: Santa Marina 2. 943782870.



“Afrikarekiko interesa oso azalekoa da hemen”

» Oñatin jaiotako Yago Abeledo misiolaria gure herrian izan zen Burkina Fasora abiatu aurretik
 » Aita Zuria da Yago, eta 22 urte daramatza Afrikan lanean



Yago Abeledo Ugandako seminarista gazteekin

Arkitektura ikasketak amaitzear zituela, dena utzi eta Afrikara misiolari joatea erabaki zuen 1995ean, Aita Zuriekin. Orduz geroztik Zambian, Kenian, Tanzanian eta Ugandan egon da, besteak beste. Oñatin jaio zen Yago, 1971ean, eta 4 urterekin Donostiara joan bazen ere, bihotzean darama gure herria. Apaiz ordenazioa ere Oñatiko parrokian ospatu zuen, eta ahal duen guztietan etortzen da gurera, mojen komentuak bisitatu eta, koinziditzen badu, parrokiako Misio Taldearen afari solidarioan parte hartzera.

tara, kartzeletara, ospitaletara... beti gaude harremanetan herri-tarrekin.

Bestalde, seminarista gazteei laguntzeaz gain, etengabeko formazioaako tailerrak ere ematen ditut, eguneratu edo berritu beharra daukatela uste duten misiolarietara zuzenduta.

Burkina Faso da zure hurrengo destinoa. Zertara zoaz?

Ugadugú hiriburuan egongo naiz. Azken hiru urteetan Ugandan egon naiz, Afrika ekialdeko (Tanzania, Kenia, Uganda...) seminaristen formatzaile lanetan, eta orain guza bera egingo dut, baina Afrika mendebaldeko (Mali, Boli Kosta, Togo...) seminarista gazteekin. Formaziozko lehen hiru urteetan lagunduko diet. Bide edo bizimodu hau benetan jarraitu nahi ote duten erabaki behar dute, eta pro-



zesu horretan lagunduko diet, nire testigantzarekin.

Kaletik aldenduta zabilta, beraz?

Bai. Tanzaniako *Dar es Salam* hiriko parrokia batean egon nintzen zazpi urtez. Oso aberasgarria izan zen, baina oso nekagarria da. Egunero hainbeste jende atenditu beharrak gainezka egiten dizu. Seminarioan egiten dudana kalitate gehiagokoa dela esango nuke. Dena den, asteburuetan beti joaten gara parrokie-

Gatazken inguruko master bat ere egin zenuen Estatu Batuetan, ezta?

Bai, baina ez zen gatazkak konpontzeko, transformatzeko baizik. Sakonago doan zerbait da. Gatazkak konpontzera mugatu barik, horren atzean dagoen energia transformatzea da helburua (oinarrian dauden arazoak aztertuz) zerbait positiboa eta adiskidetzaila bihurtuz, alde guztien onerako, mingarria izan arren.

Ugandan egon nintzenean

caravanas **Oñate**

• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
 Otadui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50
www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
 • **ERREMOLKEAK**
 • **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
 Otadui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
 Atzeko kale, 32 (erakusketa)

(Ugandako iparraldeko oso ezagatzakoa da) hainbat kurtso eman nituen horren inguruan Unibertsitate Katolikoan, eta oso aberasgarria izan zen.

Afrikako errealitatea ondo ezagutzen duzu. Zein mezu zabaldu nahi zenuke?

Teknologia berriei esker, gaur egun nahi beste informazio dauka eskura interesa daukanak. Zoritxarrez, ordea, nik ikusten dudana da, Afrikarekiko interesa oso azalekoa dela, eta ez dago arazoetan eta arazoietan sakontzeko borondaterik. Aparteko beste mundu bat da.

Bidegabekeria sistemiko asko daude gizartean, eta zaila da arazoak eta konponbideak fokalizatzea. Inportanteena, nire ustez, intentzioa da; Afrikarekin konektatu eta mundu afrikarra onartzeko intentzioa, gaur egun gertatzen ez dena, etorkinekin ikusten ari garen moduan.

Azken batean, pertsonak dira



Seminarista gazte baten gurasoekin Karamojan (Uganda)

“Inportanteena intentzioa da; Afrikarekin konektatu eta mundu afrikarra onartzeko intentzioa. Politikak etorriko dira gero.”

politikak aplikatzen dituztenak eta, beraz, pertsonak motibatzen egin behar da lana, mundu global batean bizi garela, eta elkarrengandik aberastu behar dugula, gure segurtasuna pittin

bat sakrifikatuz, eta errealitate berriak konpartitzeko prest egonez. Hori lortzen badugu, politikak etorriko dira gero.

Bizimodu eroso bat utzi zenuen munduko herri pobreenetara joateko.

NBE/ONUren rankinean munduko 4. herririk pobreena da Burkina Faso, eta inguruko herrialdeak ere (Niger, Chad...) hori nonbait. Baina hori ez da berria niretzat; aurretik ere ezagutu ditut errealitate oso gordinak. Zauden tokian zaudela, zure zerbitzua ahalik eta zintzoen ematea da kontua.

Gustora nago duela hogeitau urte hartutako erabakiarekin. Ez naiz damutzen. Gizatasun asko dago Afrikan, eta oso aberasgarria da; gogorra, baina oso aberatsa. Bete egiten zaitu Afrikak, eta, azkenerako, berak ebangelizatzen zaitu zu.

Ramon Irizar, 2
Tel. 943 08 81 84
www.candeluka.com
f Candeluka

UDAZKEN 17-18 NEGUA
DENBORALDI BERRIA

P A N PLEASE FREE|QUENT® GIOS EPP0

Emeek mana



Kultur etxean, irailaren 22ra arte, astelehenetik igandera 18:00-20:00

Frankismo garaian emakumeek pairatu zuten sufrimenduaren lekuko den erakusketa Oñatin

'EMEEK EMANA' izeneko erakusketa dago ikusgai kultur etxean hilaren 22rarte. *Intxorta 1937* kultur elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin antolatutako erakusketa da, eta herriz herri dabil, frankismoaren kontestu historikoan emakumeek izan zuten eginkizun garrantzitsua azaldu eta zabaltzeko asmoz.

Herri ezberdinetan jaiotako eta joera politiko ezberdinetako 63 emakume dira protagonistak. Bakoitzaren erretrato handi bana eta gerra garaian nahiz ondorengo urte latzetan izandako bizipenak azaltzen dira bertan, idatziz eta bideoz.

Gudu eremuaren, erbestearen, torturaren, espetxearen, errepresioaren eta bizirik irauteko estrategien inguruko kontaktak dira, emakumeen ikuspuntutik beti ere. Injustizia handiko garai haietan emakumeek gizartean izan zuten garrantzia erabakigarria aldarrikatu nahi du erakusketak. "Emakumeak ez ziren biktima hutsak izan, baizik eta protagonistak"



Frankismo garaian emakumeen izan zuten eginkizun garrantzitsua azaldu eta zabaldu nahi du erakusketak

adierazi du Intxorta elkarteak Julia Mongek.

Tamalez, baina, historiako kontakizunek, gehienetan gizonen ikuspuntua soilik jaso dute, eta horregatik emakumezkoen bizipenak aitortu nahi ditu erakusketa honek, memoria historikoa osatzeko asmoz.

Euskal emakumeen memoriaz, historiak eta haien sormen eta berritze gaitasunez dihardu erakusketak, sekula kontatu ez den eta berreskuratu beharra dagoen historian barrrena ibilbidea eginez.

EKITALDI OSAGARRIAK

IRAILAK 14, OSTEAGUNA

BISITA GIDATUAK. Erakusketara bisita gidatuak, 10:30 eta 18:00

IRAILAK 15, OSTIRALA

DOKUMENTALA. 'Ama, nora goaz?'



dokumentala, kultur etxean, 19:00. Agintari frankistek euren etxe eta herrietatik kanporatu, eta haurrak besoetan hartutik, nora joan ez zekitela alde egin behar izan zuten euskal emakumeen bizipenak azaltzen dituen dokumentala.

IRAILAK 19, ASTEARTEA

HITZALDIA. 'Emakume oñatiarrak 1936ko gerra garaian', kultur etxeko zine aretoan, 19:00. *Gogoratu Guran* taldea eta *Intxorta-1937* kultur elkartearen eskutik.

 **COINBROKER**
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 006 ✉ oñati@coinbroker.eus

🌐 www.gipuzkoa.coinbroker.eus

 *Amalia Igartua*
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ituskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jardura libentziak

tel: 677 31 20 57 • email: amaliagartua@gmail.com • Oñati



Eli Galarza Zulueta

Erakusketan azaltzen diren emakumeetako bat oñatiarra da. Elixabete Galarza Zulueta (Oñati, 1931) hain zuzen ere. Frankismoak familia nazionalistei ezartzen zien zigorra pairatu zuen Elik. Aita eta lau anai-arrebak preso eramaten ikusi zuen.

Aita, Basilio, batzokiko presidente izana, preso eduki zuten hainbat urtez Redondelan (Galizia), frankisten presondegi beldugurgarrietako batean. Arantxa, ahizpa ere karguren bat zuen batzokian, eta ilea arras moztu zioten. Beste ahizpa, Edurne, preso egon zen, umeei euskal dantzak erakusten aritzen zelako. Jose Mari eta Jon anaiak langile batailoietan egon ziren frontean erosi ostein.



Eltzia proiektua aztergai Lege Soziologia Institutuan

Eltzia proiektua izan zuten hizpide, besteak beste, Nazioarteko Lege Soziologia Institutuaren ikasturteko azken *workshop* edo mintegian. *The Policy of Cultural Rights: Socio-legal Perspectives on Cultural Diversity* izenburupean, estatuek eta legeek kultura ezberdinen garapenean duten eragina aztertu zuten bi egunez, herrialde ezberdinetako (Kanada, EEBB, Australia, Italia, Kolonbia, Mexiko...) hainbat adituk.

Miren Manías oñatiarrak eta Lucero Ibarra mexikarrak antolatu zuten mintegia, eta helburua zen aztertzea politika publikoen eta kultur aniztasunaren (kultur eskubideen) arteko harremana. Kultura funtsezko tresna da gizarte kohesioa eta herri nortasuna indartzeko, baina, bestalde, munduko beste edozein herrialdeetako kultura ezagutzeko eskubidea (UNESCO, 2005) ere hor dago. Ildo horretan, eragin eta ondorio oso ezberdinak dituzte kultur ikuspegi homogeneoa sustatzen duten politikek (kultur ezberdintasunak ezabatuz), eta kultur aniztasuna sustatzera zuzendutako politikek.

Mintegia ixteko, Oñatiko Eltzia proiektua aurkeztu zuten bertako kontseiluko bi kidek. Herriko kultur talde ezberdinen arteko elkarbizitza eta elkarlana sustatu nahi dituen proiektuaren nondik norakoak azaldu zituzten, eta eraikina bera ere bisitatu zuten.

Bezeroen beharrei
erantzuteko prest!



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6

Tif.: 943 78 16 48

email: maitane@gualbisesores.com

www.gualbisesores.com

Ikasturte berrirako asmoak: Oñati oinez, den-dena eskura!

Udalak triptiko bat banatuko du umeak dituzten Familien artean, eguneroko mugikortasun ohiturei, osasunari eta umeen autonomiari buruzkoa

Ikasturtea hastearekin batera, Lohikoa izaten da erronka berriak jartzea gure buruari: erretzeari uztea, kirol gehiago egitea, gauza berriak ikastea, kotxea gutxiago erabiltzea...

Ildo horretan, udaleko Euskara eta Hezkuntza sailak triptiko bat banatuko du ikastetxeen bitartez, eskolara oinez (edo bizikletaz, edo patinetez) joateak dituen abantailak eta onurak azalduz.

‘Eskolako Bidea’ proiektuaren barruan ikasitako ideiak familian zabaltzea da folleto honen helburua. Eskolako Bidea-n herriko

ikastetxeek, guraso elkarteek eta udalak parte hartzen dute, helburu hauekin: umeen autonomia bultzatzea; mugikortasun jasangarri, osasungarri eta aktiboa sustatzea; herria hobetzea eta denentzako atsegina egitea; bide-segurtasuna bultzatzea; eta trafikoa baretzea.

Eta horretarako oso inportantea da eguneroko joan-etorriak oinez edo bizikletaz egitea. Kotxea aparkatuta uzten badugu, Oñati osasuntsuagoa lortuko dugu eta, gainera, geure osasunaren onerako izango da.



Oinez ibiltzeak on egiten dio ingurumenari, baina batez ere, haur eta helduen osasunari

Eskolara oinez eta lagunekin joatearen ABANTAILAK

- Bere kasa mugitzen ikasten dute
- Lagun arteko harremanak hobetzen dituzte
- Autoestima garatzen dute
- Herria ezagutzen dute, kaleak, dendak, bizilagunak...
- Argi eta erlaxatuta iristen dira gelara
- Bide-segurtasun ohiturak errazago barneratzen dituzte
- ...



ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barris, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



ABANTAILAK UMEENTZAT ETA BAITA HELDUENTZAT

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) gomendatzen du haurrek 60 minutuz egitea ariketa fisikoa egunero. Beraz, eskolara oinez, patinetz edo bizikletaz joaten badira, zati handi bat egina izango dute, eta, gainera, beste hainbat onura ere jasoko dute, hala nola: autonomia eta autoestimua garatu, lagun arteko harremanak hobetu, bide-segurtasun ohiturak errazago barneratu...

Eta beste hainbeste esan daiteke pertsona helduei buruz. OMEk gomendatzen die pertsona helduei egunero 30 minutuz egitea ariketa fisikoa, eta folletoak azaltzen



**Helduentzat ere
onura asko ditu egunero
30 minutuz ibiltzeak**

du horrek gure osasun fisiko eta psikikoan dituen onurak: umore hobea izango dugu, odol-presioa jeitsiko zaigu eta zirkulazioa hobetu; sasoiaren sentituko gara, herriko jendearekin topo egiteko aukera gehiago izango dugu, harreman sozio-afektiboak garatuko ditugu...

Oñatin, zorionez, dena dago gertu, goiko mapan ikusten den moduan, interesgune gehienak elkarrengandik hurrean daude, eta, beraz, aukera ederra dugu gure eguneroko joan-etorriak oinez edo bizikletaz egiteko eta denon bizi-kalitatea hobetzeko.

Aktiboak izaten bagara, gure osasuna hobetuko dugu eta Oñati osasuntsuagoa lortuko dugu, aire garbiagoarekin. ■

‘Oñati Oinez’

Herriko ikasleen artean osatu dute goiko irudiko mapa. Herriko interesguneen arteko distantzia eta batetik bestera oinez joateko behar den denbora adierazten da bertan. Herritarrak oinez ibiltzera animatzea da maparen helburua, osasuna, bizi kalitatea eta herria bera hobetzen ditugulako. Kirodegiko fatxadan jarri dute mapa, herritar guztiek kontsultatu ahal izateko.

ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRIA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jaiegunetan
baserriko agia
egonetzeko labean egara

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

Matrikula aldia zabalik Euskaltegian

Bedita Larrakoetxea udal euskaltegian prest daude ikasturte berriari ekiteko. Aurten ere eskaintza zabala prestatu dute: Euskalduntze eta Alfabetatzen mailak, titulu ofizialak (EGA eta HABEren 1, 2, 3 eta 4. mailak) lortzeko ikastaroak, aurrez aurrekoak, etorkinei zuzendutako ikastaro bereziak, Oñatiko euskara lantzekoak...Maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza. Matrikulatzen diren ikasleen artean matrikula baten zozketa egingo da. Joan den ikasturteko zenbait ikasleren iritziak bildu ditugu ondoren.



Arantxa Anduaga

Euskaraz ahalik eta ondoen berba egin eta idatzi ahal izateko helburuarekin hasi nintzen euskaltegian. Idaztea asko gustatzen zait, baina ez nintzen gustura gelditzen, zalantza asko... Orain, aldiz, aurrerapen handia egin dudala ikusten dut. Ikasturte osoa eman dut euskaltegian, eta ikusten dut gai naizela gauzak txukun idazteko. Esperientzia oso positiboa izan da eta ni behintzat jarraitzeko gogoz nago.

Euskara ikasteaz gain, euskaltegian egiten ditugun ariketa ezberdinek gai askori buruz ikasteko aukera ematen dizute, eta alde horretatik ere oso aberasgarria da pertsonalki. Beraz, animatzen dut jendea euskaltegira etortzera. Ez dira damutuko



Damian Garcia

Fagor Ederlanen egiten dut lan, eta lantalde bateko arduradun izendatu nautenez, euskara maila hobetu beharra daukadala konturatu naiz. Lantegiko Euskara Planaren arabera, bilera guztiak euskaraz egiten ditugu, eta nire kasuan, ulertu egiten dut dena, baina hitz egitea kosta egiten zait asko. Beraz, batez ere berba egiteko trebetasuna lortzea da nire helburua. Ikasturte osoa eman dut euskaltegian eta oso esperientzia ona izan da. Gomendatzen dut euskaltegira etortzea, oinarritzko maila bat hartzeko behintzat.



Jorge Peralta

Ekuadorrekoa naiz eta duela 14 urte etorri nintzen Oñatira. Lana dela-eta orain arte ez dut denborarik izan euskara ikasteko, baina iaz langabezian geratu nintzen, eta denbora aprobetxatzea erabaki dut, kontuan hartuta, gainera, udalak laguntzak ematen dizkiela langabetuei euskara ikasteko. Nire helburua da oinarri bat hartzea eta curriculuma osatzea, edozein lanetarako euskara jakitea eskatzen dute eta. Gustura nabil euskaltegian. Hitz egitea kosta egiten zait oraindik, baina elkarrizketak ulertzen hasi naiz, poliki-poliki. Ingurukoak harritu egiten dira euskara ikasten ari naizela jakitean, baina saiatuz gero dena da posible.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

joste tailerra

Jostun Chic

Coluri Etxebarria Arzuaga

- Arropen konponketak
- Erreformak
- Jantzigintza berria

Motxon kalea, 3
T. 635 749 477

Adin guztietarako klaseak



Lorea Gomez

Lan poltsa batean izena eman nuelako eta EGA edo C1 maila beharrezkoa zelako hasi nintzen euskaltegian, titulua lortzeko asmoz. Baina ikasturtean zehar aldatu egin zait ikuspegia; uste nuen euskara maila politta neukala, baina konturatu naiz aurretik bide luzea daukadala oraindik. Asko ikasi dut ikasturtean zehar, idazteko trebetasun handiagoa daukat orain, baina titulua lortzera mugatu barik, hizkuntza ondo menperatzea gustatuko litzaidake, eta ikasten jarraitzeko asmoa daukat.

Euskaltegio irakasleen laguntza eta inplikazio maila oso handia da, eta animatu egiten ditut herritarrak euskara ikastera eta lantzera. Oñatin gaur egun hitz egiten den euskara pobre samarra iruditzen zait, ezjakintasunagatik, eta pena handia da.



Mikel Marcelino

Nire euskara maila hobetzeko eta aberasteko asmoz eman nuen izena euskaltegian, eta ikasturtean zehar jasotako laguntzari esker, HABEren 4. mailako titulua eskuratu ahal izan dut.

Esperientzia aberasgarria izan da. Talde txikia; giro ona, adin ezberdinetako jendea... Elkar elikatzeko eta elkarrekin ikasteko aukera aparta izan dugu euskaltegian. Irakasleek baliabide eta tresna ugari jartzen dituzte gure eskura, eta hori oso lagungarria izan da titulua eskuratu ahal izateko.

Nik animatu egiten ditut herritarrak euskaltegian parte hartzera. Oñatin euskaraz bizi garen arren, uste dut garrantzitsua dela euskara batuarekiko ere jarrera ona izatea, eta helburu horrekiko oso baliabide ona da euskaltegira joatea.



Izaskun Bolinaga

Euskaraz alfabetatu gabea naiz, eta elanean txostenen bat euskaraz idatzi behar nuen aldiro zalantzak izaten nituen. Horregatik, langabezian geratu nintzenean, nire burua frogatzeko unea zela pentsatu zuen; euskaltegira etorri eta nire benetako maila zein den jakiteko; zein akats egiten dudan eta zertan hobetu dezakedan ikusteko.

Denbora neukanez, kurtsoa oso ondo eraman ahal izan dut, eta esperientzia oso ona izan da. Bide batez, EGA titulua ere atera dut, eta hori ere hor egongo da etorkizunerako.

Nik animatu egiten dut jendea euskaltegira etortzera. Aukera asko eta erraztasun handiak eskaintzen ditu. Beti dago zer ikasi eta zer hobetu. Euskaldun zaharroi askotan gertatzen zaigu ohituraz esaten ditugula gauza asko, baina ez direnak zuzenak.

2017-2018 IKASTURTEA



MATRIKULA ZABALIK

- EUSKALDUNTZE ikastaroak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailetakoak.
- IKASTARO BEREZIAK: AISA, OSTALARITZA ...
- OÑATIKO EUSKARA
- EKINTZA OSAGARRIAK

- AZTERKETA OFIZIALAK MAIATZEAN ETA IRAILEAN

- Eskareri egokitutako erritmo eta ordutegiak

- OHIKO BEKA SISTEMAZ GAIN

Iraupen luzeko langabetuek doan. (Informatu euskaltegian)

- MATRIKULA EPEA : Irailaren 1etik 22ra

- OÑATIKO UDAL EUSKALTEGIA (Bidebarrieta kalea, 18)

BULEGO ORDUTEGIA: Goizez:9:00-13:00 Arratsaldez:16:00-18:30

- Oharra: Matrikulatzen direnen artean matrikula baten zozketa egingo da. Sarituak matrikula doan.

Matrikula on-line ere egin ahal izango da.

BERBALAGUNA

Iazko ikasturtean bost Berbalagun talde osatu ziren. Argazkikoa da horietako bat: Mariasun Zelaia (berbalaguntzailea) eta Ana Delia Lumbreras, Amaia Ugarte eta Mila Aranburu berbalagunak.



Euskaraz egin alde astean behin elkartzen dira Berbalagun taldeak, beraiek adostutako egun, ordu eta lekuan, eta gai ezberdinen inguruan berba egiten dute.

Euskara praktikatzeko aukera bikaina. Eman izena euskaltegian. Dohainik da.

Orain dela lau urte jarri zen martxan Berbalaguna ekimena Oñatin, udaleko Euskara sailak eta Euskaltegiak bultzatuta. Euskara ikasi nahi duten herritarrei laguntzea da helburua, hau da, euskaraz egiteko aukera emanez berba egiteko beldurrak uxatu eta ohitura berriak sortzea. Horretarako, lau zpabost laguneko taldeak osatzen dira, eta astean behin elkartzen dira, beraiek adostutako egun,

ordu eta lekuan, euskaraz hitz egiteko eguneroko gaien inguruan. Talde bakoitzean euskaraz hitz egiteko ohitura duen herritar bat (berbalaguntzailea) egoten da, zalantzak argitu eta elkarriketak bideratzeko.

Herriko jaien ondoren berriro jarriko dira martxan Berbalagun taldeak. Beraz, euskara praktikatu gura baduzu, galdetu eta eman izena udal euskaltegian (943782496).

Mariasun Zelaia

Berbalaguntzailea



Etorkinei laguntzen jardun izan dut, eta orain denbora libre gehitxoago dudanez, Berbalaguntzaile moduan aritzeko izena eman nuen. Astean behin elkartzen gara eta eguneroko kontuez hitz egiten dugu. Talde batzuek nahiago izaten dute hizketagaita jarri eta, modu horretan, erregistro ezberdinak landu. Denoi berba eragitea eta zalantzak argitzea da gure lana.

Amaia Ugarte

Berbalaguna



Bi urte daramat euskaltegian ikasten, eta aurten Berbalaguna programan ere ibili naiz. Kontua da, etxean gaztekeraz egiten dugula gehien bat, senarrak ez dakielako euskaraz, eta, ondorioz, ni neu ere samurtasuna galtzen ari nintzen. Beraz, ideia ona irudituz zitzaidan Berbalaguna programa. Gainera, jende berria ezagutzeko aukera ematen du. Oso aberasgarria da.

Ana Delia Lumbreras

Berbalaguna



Txikitan oso ondo ikasi nuen euskara, baina, gero, urte askotan albo batera utzita eduki dut, eta, jakina, erabili ezean, galdu egiten da. Beraz, Berbalaguna programaren berri izan nuenean izena eman nuen, orain dela bi urte, eta oso aberasgarria izan da. Samurrago egiten dut orain euskaraz, freskotasun gehiagorekin. Oso gomendagarria da.

Mila Aranburu

Berbalaguna



Euskaldun zaharra izan arren, beti gaztekeraz hitz egin izan dut, eta ez daukat erraztasunik euskaraz berba egiteko. Administrazioan egiten dut lan, jendaurrean, eta nire lanpostuari dagokion perfila ateratzeko gramatika asko ikasi nuen, baina berba egiteko erraztasuna falta zait. Horregatik eman nuen izena Berbalagun taldean duela hiru urte eta oso gustura nabil.

ETXiAN
Oñatiko inmobiliaria berria
Donostian etxea prosteko ere, aukera onenen informazioa eta laguntza

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi al duzu Oñatin?

Tel.: 943 71 61 60
www.etxian.net

Etxian

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

OÑATIK hitz egiteko era berriak BADITU!

Haur eleaniztunek
errendimendu hobea
dute eskolan.

Lanpostuen %70ean
ingelesa edo euskara
eskatzten dute.

Hizkuntzek
garuna
lantzen
laguntzen
dute.

Erantzukizuneko postuen
%100ean bigarren hizkuntza
bat ezagutzea exijitzen da.

Ingelesa menperatzeak
lanpostu bat aurkitzeko
aukera %44 gehitzen du.

MATRIKULA ZABALIK

Ikasturte hasiera: **irailak 18**

Matrikula zaitez orain
eta abantail handiak izango dituzu

Informa zaitez zure
MondragonLingua zentroan

Motxon kalea 7,
Oñati. Tel. 943 71 60 00
mlainati@mondragonlingua.com
www.mondragonlingua.com

Gure 10
ikasletik 9k
**Cambridgeko
azterketak**
gainditzen dituzte.

mondragonLingua

Olakuako urbanizazioa berritzeko lanak aste honetan hasiko dira

- » 7, 8 eta 9 zenbakien inguruak berrituko dituzte lehen fasean.
- » 171 mila euroko aurrekontua dute lanek, eta 4 hilabetez luzatuko dira



Aste honetan bertan hasiko dira Olakuako urbanizazioa berritzeko lehen faseko lanak, helburu garbi batekin: oinezkoen ibilbideak egokitu eta irisgarritasun edo akzesibilitate arauetara moldatzea, ahal den neurrian.

Ondoko planoak erakusten duen moduan, Olakuako 7, 8 eta 9 zenbakien inguruak berrituko dituzte lehen fase honetan, eta egingo diren lanak hauek dira: espaloiak zabaldu, zoladura berritu, zoladura mota ezberdina erabili orientazioa errazteko, pendizak arindu, eskailera-mailak berritu, behar den tokian barandak jarri, zebra-bideak altxatu, eta leku batzuetan bolardoak jarriko dituzte, kotxeak oinezkoen bidera ez sartzeko.

Ugarte eraikuntza enpresak egingo ditu lanak, 171.927 euroko (BEZ kanpo) aurrekontuarekin, A2B Arquitectos enpresak idatzitako proiektuaren arabera, eta ustekaberik ez bada, lau hilabetetan amaituko dituzte. Kanpoaldeko urbanizazioa berritzeaz gain, Olakuako 7,8 eta 9ko lurpeko garajeak inpermeabilizatze-ko lanak ere egingo dituzte.

Urbanizazioa berritzeaz gain lurpeko garajeak inpermeabilizatuko dituzte.



1 ARRAPALA BERIA. Koma akademiaren aurrean arrapala bat egokituko dute, 7 zenbakidun blokearen beste aldean dagoen arn antzekoa. Zebra bide bat ere egokituko da bertan, eta Lazararaga kaleko ormatxoari zati bat kendu eta farola desplazatu egingo dute.



2 EDUKIONTZIAK LEKUALDATU. Super BM merkatalgunearen atzean dauden edukiontzia 10-A eta 11-A etxe-blokeen artean dagoen parterrearen aldamenean kokatuko dituzte. Parterreari zati txiki bat kenduko diote eta zebra bideak egokituko dira bertara iristeko.



3 PLATAFORMA BAKARRA. Taberna eta 9 zenbakidun etxe-blokearen arteko kalean plataforma bakarra egokituko da (espaloiak eta galtzada altura berean dituen). Etxe-blokearen aldeko espaloia zabaldu egingo da 2m.-raino. Kalearen bi muturretan koloredun asfalto jarriko da espaloien jarraipena egin dezaten.



4 ESKAILERAK BERRITU ETA BARANDA. Tabernako sarreran dauden eskailerak berritu egingo dituzte. Merkatal gunearen aurreko eskailerak kendu egingo dituzte, eta baranda luzatu egingo dute, 7 zenbakidun etxe-blokearen pareko eskaileretaraino, eta hor hasiko da arrapala merkatal zentrura iristeko.



5 ZAMAKETA LANAK. Merkatal gunearen aurrealdean dagoen aparkalekuan zama lanak egiteko gune bat bereiztuko da (horiz margotuta dago planoan). Bost aparkaleku hartzen ditu gune honek, eta eguneko ordu jakin batzuetan (bere momentuan zehaztuko da ordutegia), merkatalgunera datozen kamioiek erabili ahal izango dute. Ondorioz, debekatuta egongo da kamioiek merkatalguneko espaloira igota aparkatzea..

Ingeniari elektrikoa kontratatuzko deialdia

Oñargi S.L., Oñatiko udalaren enpresa publikoak, ingeniari elektrikoa kontratatuzko deialdia egin du. Kontadoreen eta sistema elektrikoaren arduraduna izango da. Mantentze lanak eta txosten teknikoak egin behar dituzte, besteak beste. Ingeniaritza Elektrikoan Gradua eskatzen da, antzeko lanpostuetan eskarmentua, gida baimena eta euskara maila altua. Interesatuak <https://lks.eprselec.com/Oferatas> atarian eman dezakete izena.

Herribus zerbitzua esleitzeko deialdia

Herribus zerbitzuak herritarren artean izan duen harrera (3.000tik gora erabiltzaile hilean), ikusita, zerbitzuari jarraipena ematea erabaki du udalak, eta horretarako zerbitzuaren esleipena egiteko deialdia egin berri du. Zortzi urterako kontratua izango da, bi urtez luzatu ahal izango dena. Lehenengo urterako oinarritzko aurrekontua 150.749 eurotan (+BEZ) finkatu da. www.onati.eus webgunean ikus daitezke deialdiaren oinarriak.

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS URBIA MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Irailaren 9an orduerdiro egongo da autobusa Arantzazura

GOIZEKO 7:30ETAN HASIKO DA ZERBITZUA

Irailaren 9an (larunbata), Arantzazuko Ama Birjinaren Eguna, autobus zerbitzu berezia egongo da Oñati eta Arantzazu artean. Goizeko 07:30etan hasita, orduerdiro ibiliko dira autobusak (35 plazako bi autobus), eta hirugarren autobus bat ere (55 plazakoa) jarriko da errefortzu moduan, goizeko 9:00ak eta 14:00ak artean. Dena den, ordutegia orientatiboa da, eta jendea pilatuz gero, autobusak joan-etorrian ibiliko dira eten barik. Arantzazuko aparkalekuak betetzen badira, errepidea itxi egingo da eta autobusez bakarrik igo ahal izango da bertara. Kasu horretan, Arantzazuko Ama kalean ere geltokia izango du autobusak. Azkenengo autobusa 18:30etan irtengo da Oñatitik.

HERRI EGUNEAN ERE BAI

Hainbat herritarrek egindako eskaria aintzat hartuz, urriaren 30ean (Herri Eguna) ere egongo da Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzua, egun horretan bazkaltzera Arantzazura joaten diren herritar taldeei zerbitzua emateko, batez ere.

Urriaren 1ean (Errosario eguna) ere egongo da autobus zerbitzua (ordubetero, goizeko 07:30etan hasita), baina urriaren 2an (astelehena) ez da zerbitzurik egongo. Irailaren 10, 17 eta 24an ohiko zerbitzua egongo da.



Hondakin bilketa sistema hobetzeko 5 proposamen

Lau urte igaro dira, jada, Oñatin atez-ateko hondakin bilketa sistema abian jarri zenetik, eta udalak egin berri duen inkestaren arabera, herritar gehienak (%79,3) ondo edo oso ondo moldatzen dira horrela.

Inkesta berean herritarren %30ek diote egungo bilketa sistemak ondo funtzionatzen duela, baina egokitza-penak behar dituela. Ildo horretan, Oñatiko udalak bost proposamen zehatz egin dizkio Debagoieneko mankomunitateari, intzidentziak gutxitu (apurtzen edota galtzen den ontzi kopurua murriztu) eta bilketa sistemaren eraginkortasuna areagotzeko helburuarekin.

Hona hemen proposamenak:

-Haizeteei aurre egiteko krisketa herdoilezinak jartzea eskitokietan.

-Haizeteen babeserako azpiegiturak jartzea, ontziak gehien apurtzen eta galtzen diren 3-5 bilketa guneetan.

-Ontzi marroi sendoagoak hornitzea.

-CESPAko langileei (biltzaileak) formakuntza ematea eta beraien lanaren jarraipena egitea (ontzien erabilerara desegokiak ekiditeko).

-Bebarruetan kartoia eta papera modu komunitarioan atera ahal izateko aukera eskaintzea berriz ere herritarrei



Gaztetxoan gozagarri

Ondoko argazkietan ikusten den moduan, ederki gozatzen ari dira herriko gazte eta umeak, beraientzat bereziki egokitu diren guneetan.

Eltzia pareko Ur Uhinak parkea abuztuko lehen egunetan zabaldu zen, eta udaldiko beroak eramangarriago egiten lagundu die askori. 323.648 euro bideratu ditu udalak parkea berritzera.

Bestalde, Ibarren, lehen zegoen skate-gunea handitu egin du udalak (baranda, piramide, arrapala, kaxoi eta bestelako elementuekin), *skater*, *roller* eta *biker*-en gozamenerako, eta 20 metroko tirolina bat ere egokitu du aldameneko berdegunean. Udalak 60 mila euro pasatxo bideratu ditu bi gune hauek egokitzeko.

Denak Kataluniara begira

Hilabete eskas falta da urriaren 1erako. Egun horretan independentziari buruzko erreferenduma deituta dago Katalunian. 'Nahi duzu Katalunia estatu independente izatea errepublika gisa?' da galdera. Generalitatea legeak onartzen ari da galdeketari babes juridikoa eman asmoz, baina Madrilek behin eta berriz esan du ez dela erreferendumik egingo, eta eskura dituen baliabide guztiakin (zehaztu gabe) oztopatuko duela. Ikusteko dago, beraz, nola amaituko den auzia. Oñatin bizi diren kataluniarrak ere kezkatuta daude. Hauetako batzuen ikuspuntuak jaso nahi izan ditugu.



Eli Pahissa Roselló

Bartzelonakoa,
20 urtez Oñatin



Ondo iruditzen zait erreferenduma egi-
tea, horrela argi geratuko baita zein den
Katalunian dagoen sentimendua. Zori-
txarrez, ordea, loteslea izango ez denez
(Madrilrentzat), uste dut ez duela benetan
islatuko Kataluniako gizarteak nahi
duena. Independentziaren aldeko denak
pillan joango dira botoa ematera, baina
aurka daudenak ez, ez dutelako lotesle-
ztat jotzen. Beraz, gehiago zabala ate-
rako da independentziaren alde, baina...
Horrek ez nau konbenzitzen. Hala ere,
uste dut egin behar dela erreferenduma.

Abuztuan katalunian izan naiz, eta eu-
foria giroa ikusi dut independentzia za-
leen artean. Jendea oso animatuta ikusi
dut. Independentziaren aldeko komuni-
kabideetan etengabeak dira erreferendu-
maren aldeko mezuak eta kontsignak.
Dena oso polita jartzen dute, baina nik ez
dut hain garbi ikusten. Kataluniak pisu
handia du Espainian, eta Madrilek diren
eta ez diren traba guztiak jarriko ditu.

Nik uste dut egingo dela erreferen-
duma, baina susmoa dut, independen-
tziaren aldeko babesak ez dela aurrekoan
bestekoa izango. Jendea nekatzen hasia
ote den susmoa dut. Independentzia
beste gairik ez dago aspaldian, eta beste
gai garrantzitsu asko (osasuna, hez-
kuntza...) albo batera geratzen ari dira.
Egia da, bestalde, Madrilek mozketa han-
diak egin dituela azken urteetan, eta jen-
deak 'nahikoa da!' esan duela. Ikusiko
dugu zer gertatzen den.

Jordi Gomez Lara

Bartzelonakoa,
12 urtez Oñatin



Uste dut aspaldi eginda egon behar zela
erreferenduma. Kataluniaren aldarrikapen-
ak ez dira atzo goizekoak, eta uste dut
irteera eman behar zaiola bide demokra-
tikoak erabiliz. Hortxe daude Kanada
edo Eskoziako adibideak. Ez dakit zein
izan daitekeen irtenbidea edo soluzioa,
baina ez da bidezkoa esatea espapiniar
konstituzioa munduko onena dela, eta
kitto. Berrogei urte dira onartu zela, eta
zaharkituta dago. Gainera, 57 urtetik be-
herako herritarrok ez genuen konstitu-
zioa bozkatzeko aukerarik izan. Beraz,
Kataluniako herriak beste zerbait nahi
badu, bozkatzeko aukera izan behar
duela uste dut, Espainiari gustatu ala ez.

Katalunian egon berri naiz, eta jendea
kontzientziatuta ikusi dut. Agian ez dugu
orain dela 4-5 urte besteko indarrak, pro-
zesua luzatzeak nekea eragiten duelako,
baina jendeak bozkatu egin nahi du.
Azken urteetan makina bat hauteskunde
izan ditugu Katalunian, eta beti irtetan
dira nagusi, gorabehera txiki batzuekin,
independentziaren aldekoak. Ikusteko
dagoena da, parlamentuko bozka horiek
nola islatuko diren erreferendum batean.
Nik uste dut etorkinen multzoak duela
giltza. Konbentzitu behar ditugu hobeto
biziko direla Kataluniar errepublikan.

Ez dakit zer gertatuko den. Uste dut
bozkatu egingo duela jendeak, eta pre-
sioa sartuko zaiola Madrili, baina ez dakit
presio horrek zein emaitza eta noiz
emango duen. Orain? Bost urte barru?...

Montse Petit Castelló

Gavá herrikoa
20 urtez Oñatin



Nahiago nuke erreferenduma legezkoa
balitz, baina sokatira honetan ez du inork
amore eman nahi, eta horregatik iritsi
gara egoera honetara. Garbi daukat, bere
egunean estatutua onartu izan balu Ma-
drilek, ez ginatkeela iritsiko egoera ho-
netara. Baina, azken batean, gobernu
zentrala bera da gero eta independen-
tista gehiago egotearen erantzulea. Nik
baditut lagunak, guraso erdaldunen
seme-alabak, beste edozein katalan
baino independentistagoak direnak, eta
hori Madrilek elikatu du.

Ez dakit zer gertatuko den. Pentsatu
nahi dut gobernu katalanak kartaren bat
daukala gordeta. Ez badauka Europaren
eta ez beste inoren babesik, oso zaila
izango da aurrera egitea. Espainiak atzera
botako ditu Generalitateak onartutako
lege guztiak. Mossoekin ikusten ari gara
egunotan. Madrilek ezin du jasan Katalu-
niako poliziak eman duen irudi ona, eta
orain eginahalak egiten ari da mossoen
irudia desprestigiatzeko.

Garbi daukat Katalunia izan daitekeela
independentea. Lehenengo urteak zai-
lak izango liriteke, baina aurrera aterako
litzateke. Hala ere, zaila ikusten dut, eta
uste dut gauza asko (Ogasun propioa...)
falta direla oraindik.

Ikusiko dugu nola amaitzen den soka-
tira hau; edo soka hausten den, edo,
beharbada, azken orduko akordio batera
iristen diren, konpetentzia batzuen trans-
ferentziaren bidez.

Ile-motots solidarioak

Miri ileapaindegiak 'Mechones Solidarios' plataformarekin bat egin du

Mechones Solidarios proiektua 2013an sortu zen, kimioterapia tratamenduen ondorioz ilea galtzen duten pertsonen laguntzeko helburuarekin.

Ekimenaren sustatzaileek uste dute, minbiziari aurre egiteko, tratamendua bezain garrantzitsua dela gaitzari aurre egiteko animoa eta indarra edukitzea. Eta horretarako oso lagungarria da gaixoak bere irudiaren pertzepzio ona izatea, autoestimua indartu eta gaixotasuna gainditzeko lagunduko baitio.

Hori dela eta, *Mechones Solidarios* elkarteak kalitatezko ileordeak egiten ditu jendeak emandako ilearekin. Ile naturalaren prezioa altua da, eta pelukak garestiak izaten dira, baina ekimen solidario honi esker, ileordearen prezioa %80raino murriztea lortzen da.

Irabazi asmorik gabeko elkarte da *Mechones Solidarios*, eta baliabiderik ez duten pertsonen dohainik uzten dizkiete ileordeak (www.mechones-solidarios.com).

ILEAPAINDEGI SAREA

Ileordeak egin ahal izateko, ile naturala behar dute *Mechones Solidarios* elkartekoek, eta



Kimioterapiaren ondorioz ilea galtzen duten pertsonen laguntzeko ileordeak egiten ditu *Mechones Solidarios* elkarteak, jendeak emandako ilearekin



Iraidek bere adats luzea eman dio *Mechones Solidarios* elkarteari. Iraidek bi urte eman ditu ile luzatzen, gaixorik dauden umeei laguntzeko asmoz.



horretarako ile-apaindegi laguntzaile sarea zabala dauka estatu osoan zehar. Eta horietako bat da Oñatiko *Miri* ileapaindegia (Bidebarrieta, 11). "Behar duten pertsonen laguntzea gustatzen zait, eta ekimen hau oso interesgarria iruditu zitzaidan minbizia duten pertsonen laguntzeko" azaldu digu Miriam Gomez ileapaindegiko arduradunak. "Zoritxarrez, ia denok dugu inguruan minbizia duen pertsonaren bat, eta honek ez die gaitza sendatuko, baina eramangarriagoa egiten lagunduko die. Eta hain samurra da gainera!"

GUTXIENEZ 20 ZENTIMETRO

Mechones Solidarios proiekturako ilea eman nahi duenari 5 eurotan moztuko diote *Miri* ileapaindegian. "Gutxienez 20 zm-ko luzeera eduki behar du ileak" azaldu digu Miriamek. "Edozein motatako (kizkurra, ondulatua, lisoa) ilea izan daiteke, eta ez da inporta tintatuta egotea edo permanentea eginda badago".

Moztutako ilea eta bezeroak ordaindutako 5 euroak *Mechones Solidarios* elkartera bidaltzen dira. Trukean pultsera bat eta diploma bat (ilek 40zm. baditu) jasoko ditu bezeroak.

'Miri': Honek ez die gaitza sendatuko, baina eramangarriagoa egiten lagunduko die

NI moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

'Oñatiko bizkotxoa'



XIX. mendean ospetsua zen 'Oñatiko Bizkotxoa' berreskuratu nahi dute Txokolateixiak eta Artixa elkarteak

Oñatiko ondare gastronomikoa berreskuratzeko lanean ari da aspaldian Anton Azpiazu, eta txokolatearen interpretazio zentroa (Txokolateixia) martxan jarri ondoren, orain 'Oñatiko Bizkotxoa' berreskuratzeko prozesuan murgilduta dabil, Raul Fernandez (Aizpeko-Arantzazuko Madalenak) gozogilearekin eta Artixa kultur elkartearen laguntzarekin.

XIX. mendean oso ospetsua izan omen zen Oñatiko Bizkotxoa. 1833koa da Azpiazuk aurkitu duen erreferentzia zaharrena. *De Oñate a la Granja* (Benito Pérez Galdos, 1898) nobelan ere aipatzen da, eta urte hartako Bilboko errezeta lliburu batean ere agertzen da Oñatiko Bizkotxoa. Oso ohikoa omen zen garai batean opari bezala eramatea.

Oñatiko Bizkotxoaren errezeta ezberdinak aurkitu ditu Azpiazuk, eta Raul Fernandez gozogilearen laguntzarekin proba ezberdinak egin, eta pittin bat moldatu dute, gaur egungo zapore eta gustuetara egokituz; kanela pittin bat gehitu diote, apur bata gozatzeko, eta limoia ere erabili dute kontserbagarri natural gisa. Gaienez txokolate pittin bat jartzeko aukera ere aztertzen ari dira. Dena den, hilaren 20ko hitzaldi-dastaketan emango dituzte Oñatiko Bizkotxoari, eta gure herriko ondare gastronomikoa berreskuratzeko esku artean dituzten proiektuei buruzko informazioa.

Kilometroak egunean (herriko plazan) eta Herri Egunean (taloen tabernaren ondoan) jarriko dute salgai, eta hortik aurrera Txokolateixan eskuratu ahal izango da



Bi unitateko kaxetan salduko dute

HITZALDIA ETA DASTAKETA

IRAILAK 20, KULTUR ETXEAN, 19:00

Artixa kultur elkarteak antolatuta, Oñatiko Bizkotxoaren inguruko hitzaldia egongo da irailaren 20an, asteazkena, kultur etxean (19:00). Txokolateixako Anton Azpiazuk, Aizpeko (Arantzazuko Madalenak) elkarteko Raul Fernandez gozogileak, eta gastronomia gaietan aditua den Lauran Buscak parte hartuko dute bertan.

Oñatiko Bizkotxoaren inguruan dauden datuak (erreferentzia historikoak, errezetak...) azaldu, eta gure herriko ondare gastronomikoa berreskuratzeko dituzten proiektuak ere aurkeztuko dituzte. Hitzaldiaren amaieran Oñatiko Bizkotxoa dastatzeko aukera izango dute bertaratzen diren guztiek.

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkiak: Kilometroak 2017

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

EAJ-PNVren Udal taldeari

Jose Antonio Amundarain eta Alberto Etxeberria

Uztaileko Kontzejupetiko zenbakian, EAJ-PNVren Udal taldeak ateratako idatzian gure izenak agertzen ziren, seguruasko Goiena astekarian eman genuen iritziari erantzunaz edo. Pentsaurrean esan zutena baloratzea besterik ez genuen egin baina badirudi haserre oso haserre hartu dutela gure atrebentzia.

Berriz ere lehen esandakoa errepikatzen dute, alegia Oñatiko Udaltxean, inposizioa, inprobisazioa, gaitasun eza eta abar jasan behar dutela eta gainera ez dutela EH Bilduren mundu-ikuskerara, ez bakean, ez bizikidetzan, ez giza eskubideetan, ez gizarte bizitzan, ez ekonomian eta industrian, ez hezkuntzan... ez ezertan.

Aurreneko aldiz egin ziren hauteskunde haietatik gaur arte, beti agintean egon da EAJ-PNV eta azkeneko biak galdu egin ditu eta egoera horrek nahita nahiez, bihotzerrea sortu behar die. Ez da posible, pentsatuko dute, EH Bilduko jende horrek duen mundu-ikuskerara desegoki eta gaizto horrekin bi alditan hauteskundeak irabaztea Oñatiko herrian.

Eta adierazitako guztia gutxi bazan, orain, batzuek gorroto larregi daukabela esanaz amaitzen dute idatzia.

Hori bakarrik behar genuen, iritzi bat ematea edo kritika egitea, gorrotoarekin espreski eta propio nahastea. Baina nundik datorren ikusita ez da hain harriztekoa ere, hainbeste urteetan agintean egon direnentzako ez da izango trago ederra EH Bilduko lotsagabe horiek etorri eta aginte maki-la kentzea.

Beraz, aurrera EH Bilduko Alkate eta zinegotziak, esanak esan, zuen lanaren emaitza ederki asko isladatzen da herrian egin den inkestan, eta emaitza horrekin, guk bezela beste askok ere poz galanta hartuko dute.



Bengoa, Gipuzkoako txapelkun hirugarrenengoz jarraian

Jose Mari Bengoa *Urzabal*-ek hirugarren urtez jarraian irabazi du Gipuzkoako Artzain Txakurren txapelketa. Gorbeia arrazako 6 urteko *Eder* txakurrearekin nagusitu zen irailaren 3an Legazpin jokaturako Gipuzkoako 49. txapelketan. Arrazako txakur onenaren saria ere jaso zuen *Eder* txakurrak. Horrenbestez, irailaren 16an Atxondon jokatu den Euskal Herriko txapelketan ariko da Bengoa, eta Oñatin irailaren 24an jokatu den nazioarteko txapelketarako txartela ere poltsikoan du Bengoak. Aipatzekoa, baita ere, Miguel Arregi oñatiarra eta *Argi* txakurra hirugarren sailkatu zirela Legazpin.

Legazpikoaren aurretik, Kataluniako *Castellar de n'Hug* herriko 55. artzain txakur txapelketan ere aritu zen *Urzabal-Eder* bikotea. Han bosgarren sailkatu zen, laugarrenarekin berdinduta, eta Gorbeia arrazako txakur onenaren saria ere jaso zuen. Argazkian dago bera Carles Puigdemont presidentearen ondoan.

Tanborrada nagusirako entsaioak


Irailaren 28ko tanborrada entsaioak irailaren 14, 19, 21 eta 26an izango dira, 20:00etan, Eltzian. Hilaren 26koa entsaio orokor edo nagusia izango da. Horiez gain, hilaren 17an (igandea) ere egongo da entsaioa, 17:00etan, Eltzian.

EKONOMIA KOLABORATIBOA?

Teknologia berriek, eta plataforma digitalen zehazki, eragindako eta bideratutako aldaketen garrantzia eta sakontasuna ukazina dira gizarteak ekoiztu, banatu eta kontsumitzen duen ereduetan, eta nola ez, lan merkatuan.

Uber, Airbnb, Cabyfy, Blablacar, Deliveroo izenak gure gizartean ezagunak egiten ari diren heinean, beraien izaera, funtzionamendu eta ondorioen inguruan zalantza ugari ere sortu dira. Denak sartu nahi dira **ekonomia kolaboratiboaren** (*sharing economy*) izenpean, baina beste zenbait kontzeptuekin askotan gertatu

Luis
Guridi



ohi den bezala, hemen ere kolaboratibo hitzarekin erabilpen maltzurra ematen ari da, eta askotan esklabutza berria estaltzeko edota lehuntzeko besterik ez da egiten.

Ez dago garbi zein irizpide erabili bereizterakoan, baina agian baliogarria izan daiteke honako bi faktore hauek kontuan hartzea.

Alde batetik parte hartzen duten aktoreak eta zer motatako ekoizpen, kontsumo edo finantzaketa harremanak ematen diren beraien artean. Partikularren

artearen ematen badira azpierzarriak diren ondasun eta zerbitzuak konpartitzeko, ordainduak ala ez, **ekonomia kolaboratiboa** izango litzateke (Blablacar, Airbnb?). Ordea, profesionalen eta partikularren arteko harreman ordainduaz ari bagara, orduan **eskaripeko ekonomia** deituko zitzaien (Uber, Cabyfy, Deliveroo, Airbnb?).

Bestalde, kontuan hartzen bada gaur egungo merkatu ekonomia eraldatzeko asmorik duten ala ez, orduan ez bata eta ez bestea ez lirateke sartuko ekonomia kolaboratiboaren barruan. Lehenengoan, banakako kapitalismo popularrak hitz egitea zuzenagoa litzateke, kontrolatu eta neurri fiskalak hartu beharko liratekeelarik. Bigarrenean, kapitalismo basatiaz, esplotazioa eta lanaren prekarizazioa besterik ez dakarrelako, eta kasu honetan neurri zehatzak hartu beharra dago.

koma
hizkuntza
zerbitzuak

**zure arrakasta,
hizkuntza batetara**

VIRKO
KOMA JUNIOR...
4 urtetik aurrera.

Informa zaituz

Lan mundurako sarrera...
Zure neurriko ikastaroekin hizkuntzarekiko trebetasuna, gaitasuna... izango dira guztion helburuak.

Ikastaro orokorrak eta negoziotari zuzendurikoak...
Hizkuntza guztiontzat (taldeka, pertsonalizatuak...)
Ikastaro trinkoak...
Txinera, Ingelesa, Frantsesa, Alemanera, etab. (urte guztian zehar)

Azterketa ofizialen prestaketa...
> Euskara (Hizkuntza Eskakizun maila ezberdinak, EGA...)
> Ingelesa, Alemanera, Italiano, Frantsesa.

Itzulpena eta interpretariak...
(Azkartasuna, Zehaztasuna, Profesionaltasuna)
traduccion@komalingua.com

Koma Vitoria-Gasteiz:
Sierra de Andía, 2 - 26D bulegoa
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tfnua.: 945 17 00 57

Koma Oñati:
Oñati, 7 - behea
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tfnua.: 943 71 82 08

Koma Iruñ:
Señor de Aranzate, 14
20304 Iruñ (Gipuzkoa)
Tfnua.: 943 62 86 62

Koma Bilbo:
Gregorio de la Revilla, 27 - 7. solairua
48010 Bilbo (Bizkai)
Tfnua.: 944 44 86 79

Koma Arrasate:
Iturriz, 35 - behea
20500 Arrasate (Gipuzkoa)
Tfnua.: 943 71 26 31

e-mail: info@komalingua.com · www.komalingua.com

- Arazerixan -

HAUR ETA GAZTERIAKO UDAL ZERBITZUEN UDA!



Azkenengo urteetan bezala, aurtengoan ere ekintzez Beteta izan dugu uda; besteak beste, udaleku irekiak, arte udalekuak, kuboko eta topalekuko irteerak, eszenikoak... Ekintza berezi gisa, aurtengoan film labur ikastaroa gauzatu da. Eskerrik asko gurekin era bate-ra edo bestera parte hartu duzuen guztiei, primeran pasatu dugu eta!! Irailean berriz izango gara bueltan, abentura eta esperientzia berrien bila.





Usain Bolt harrapatzeko azken aukera zen

FELIX SANCHEZ ARGAZKILARIA / FOTORUNNERS

Munduko atletismo txapelketen jarraipena egin du oñatiarrak

Bere pasioetako bi (argazkilaritza eta atletismoa) uztartzeko aukera izan du Felix Sanchezek abuztuan. Munduko atletismo txapelketen jarraipena egin zuen Londonen, eta 50.000tik gora argazki aterata itzuli da. Denbora beharko du horiek denak kudeatzeko, baina ale ederrenetako batzuk aurreratu dizkigu.

Argazkilaritza eta atletismoa, zure pasioetako bi uztartzeko aukera izan duzu Londonen. Zer moduz?

Usain Bolt eta *Mo Farah* bezalako izar handiei atletismo pista batean argazkiak ateratzeko azken aukera zen, eta gertu samar zenez (Londonen), bertan egon beharra neukala pentsatu nuen. Esperientzia ederra izan da; neketsua baina oso aberasgarria.

Nola moldatu zinen bertan egoteko?

Oso zaila da argazkilaria bezala akreditatzea munduko atletismo txapelketa batean. Herrialde bakoitzetik, gehienez, bost argazkilaria joan daitezke. Nik *Runner's World* aldizkariaren (bertako kolaboratzailea naiz) Mexikoko ordezkari bezala lortu nuen akreditazioa.

150 argazkilaria guztira. Lehia handia egoten al da uneko argazki onena ateratzearren? Aurreneko bi egunak izan ziren gogorrenak; karrera asko eta, gainera, Bolt lehiatzen zen. Ondorengo egunak lasaiagoak izan ziren, eta beti helmugan pilatuta egon barik, beste leku batzuk bilatzen saiatu nintzen. Argazki onena helmugakoa dela pentsatu ohi dugu, baina ez da beti horrela izaten; Bolten argazkia (lurrean etzanda) horrela ateratu nuen. Ez dakizu non egongo den argazki onena.

Agentzietako argazkilariek azkartasunari (ahalik eta azkarraren bidaltzea argazkia) ematen diote lehentasuna, eta ez hainbeste kalitateari. Nire helburua, aldiz, une bereziak eta keinuak (poza, sufrimendua, tristezia...) harrapatzea zen.



Une eta keinu bereziak (poza, tristura, sufrimendua...) harrapatzea gustatzen zait

50.000 argazki ateratu dituzu. Zer egiten duzu horiekin?

Nire sare sozialetan (Instagram/*@fotorunners* eta Facebook/*fotorunners*) jarriko ditut poliki poliki. Batzuk korrikalariei edo kirol-markei saltzen dizkiet, eta beste asko *Runner's World* aldizkariarentzat izaten dira.

Kirol arloan zer azpimarratuko zenuke?

Ikusle aldetik oso arrakastatsua izan da; estadioa beteta egon da, goiz eta arratsalde. Markak pobretxoagoak izan dira, dopina kontrolatuago dagoelako. Belaunaldi aldaketa bat ematen ari da, eta ustekabe ugari egon da. Nik uste dut izarrak falta zaizkiola atletismoari, eta *Bolt* edo *Farah* gabe, are gehiago.

Estadioan korrika egiteko aukera ere izan zenuen, ezta?

Beti antolatzen da kazetari eta argazkilarientzako karrera, 800 metrokoa. Danera, 160 bat lagunek parte hartu zuten, 16 serietan, eta nik nirea irabazi nuen. Oso esperientzia polita eta berezia izan zen.

50.000

argazki ateratu dituzte Felixek munduko txapelketan



MOMENTUAK Argazki esanguratsu ugari egin ditu Sanchezek Londreseko txapelketan.



Oñatiko III. Mendi Martxa, irailaren 16an

Irailaren 16an jokatu da Oñatiko III. Mendi Martxa. Aurreko edizioetan bezala, bi ibilbide egongo dira aukeran: luzea (32 km.) eta motza (23km). **Irailaren 11a** da izena emateko azken eguna kirolprobak webgunean edo Aloña tabernan. (10€ federatuek / 12€ ez-federatuek. Egunean bertan, 14€/16€). Izen-emate bakoitzeko 1€ KILOMETROAK '17-ra bideratuko da.

Goizeko 7,30etan hasiko da martxa, bai luzea eta bai motza ere. Aizkorri-Aratz natur parkean barrena egingo da ibilbide osoa, eta bidean zehar egongo diren zabor poltsak erabiltzea eskatzen du antolakuntzak, mendian ahalik eta hondakin gutxien utzteko. Gogoratu ez dela lasterketa bat; mendiaz gozatzea da helburua. Ibilbidea amaitzen duten mendizale guztiek jasoko dute opari bana (aurrez izena eman dutenek bakarrik). Eguerdiko 13:00ean Tiago Marcelino zenari eskainitako omenaldi ekitaldia egingo da herriko plazan.

San Migeletako txirrindulari probak

Larunbatean, irailak 9, Junior eta Kadete mailako 2. urteko txirrindularientzako Mikel Deunaren 59. Saria jokatu da. Goizeko 10:00etna abiatuko dira Unibertsitate etorbidean, eta bertan amaituko da, 12:00ak aldera, 81 kilometroko ibilbidea osatu ostean. ULMA taldeko sei txirrindulari ariko dira bertan (Ander Gartzia, Nestor Oroz, Iosu Gartzia, Mikel Otero, Gaizki Maiztegi eta Ander Blazquez. Irailaren 16an jokatu da Afizionatuentzako Oñati saria.

Hiru oñatiar Espainiako igeriketa txapelketan

Nerea Diaz, Ainhoa Redin eta Sara Isasisasmendi Aloña Mendiko igerilariak Espainiako igeriketa txapelketan parte hartu zuten uztaila bukaeran. Sararentzat aurreneko esperientzia izan da. Ainhoak iaz ere lortu zuen Espainiako txapelketarako minima, eta Nerearen kasuan bosgarren aldia izan da. Hirurek ere maila txukuna eman zuten. Zorionak!



Arg.: Ok Magazine

Emozio handia San Migel pilota txapelketan

XXV. San Migel Pilota Txapelketa azken txanpan sartuko da. Irailaren 8an jokatu da multzoko azken jardunaldia, eta gero, finalerdiak (irailak 15 eta 16) eta finalak (urriak 1). Badirudi, gainera, parte hartzen ari diren Oñatiko pilotari guztiak sartuko direla finalerdietan. Beraz, emozio handiko partidak izango dira.

BIAIN-GARTZIA IRABAZLE AÑORGAN

Ander Biain eta Markel Gartzia oñatiarrek Añorgako pilota txapelketa irabazi zuten uztailaren 9an. Ander Biain izendatu zuten finaleko pilotaririk onena. Bestalde, Anderrek berak, Zornotzako txapelketa ere irabazi zuen uztailaren 23an, Imanol Odriozola urnietarrarekin bikotea osatuz.



Oñatiko historia ezagutzeko hiru antzerki labur

Olaitturri kultur elkarteak hiru antzezlan taularatuko ditu irailaren 24an, kokaleku ezberdinetan, kilometroen jaiarekin bat eginez.



*Zumeltzegei dorrearen aurrealdean
12:00etan
13:00etan
eta
15:30etan*

1542. urtea: Gebaratarrak, konderriko jaunak

Oñatiri buruzko lehen albiste idatzia 1149. urtekoa da, eta jadanik gebaratar kondeen leinua ageri zaigu, herriko lur eta etxalde gehien jabetzarekin.

Feudalismo garai osoan iraun zuen konderriak. Antzezlan honetan, gure herriko garairik oparoenetakoa islatzen saiatu gara, 1542an kokatzen dena. Amerikarekin sustatu zen merkataritzak itsasontzien premia ekarri zuen, eta, ondorioz, herriko olak ekoiztitako iltze eta burdinazko industriarena.

Gorteari begira bizi ziren gebaratarrez gain, ganboatarren eta oinaztarren leinuak zeuden. Ganboatarrek kanpokoekin harremanak sendotzea nahi zuten, interes ekonomikoak defendatzeko, eta oinaztarrek, berriz, bertoko legeak babestearen aldekoak ziren.

Azkenik, laugarren bizilagunen multzoa kondepekoek osatzen zuten. Urte asko eman zuten borrokan, kondeen eskumenak iraganeko garai feudaletakoak zirelakoan, eta hitzarmen bat sinatzea lortu zuten 1542an, garai berrietarara egokitzeko baliatu zutena.



*Sancti Spiritus unibertsitateko klaustroan
12:00etan
13:00etan
eta
15:30etan*

1760: Unibertsitateko amodiozko istorioa epaitu zenekeoa

Euskal Herriko lehen unibertsitatea Sancti Spiritus da, 1545ean Rodrigo Mercado Zuazola apezpikuaren ekimenez eraikia. Lau aldundien babes ekonomikoa izan bazuen ere, ohiko gorabeherak jasan zituen mendeetan zehar. Gerra karlistekin galdu genituen eskumenez eraginez, 1902an Madrilek maila akademiko unibertsitarioa kendu zion.

Bertako ikasketa nagusiak zuzenbide zibila, kanonikoa eta medikuntza izan ziren.

Antzerki hau 1760an kokatzen da. Unibertsitateak bi mendetako ibilbidea du jada, eta herrian ostatu hartzen zuten berrehun ikasletik gora zeuden.

Orduko bikote gazte baten amodio istorioa ardatz hartuta, aberatsen eta herritarren arteko tirabirak ezagutzeko aukera izango dugu, eta baita garai hartako irakasle zein ikasleen bizimodua, eta ikasleen eta herriko gazteen arteko harremanak ere.



*Lazarraga jauregiko lorategian
12:00etan
13:00etan
eta
15:30etan*

1845. urtea: Gipuzkoan anexionatu zenekoa

Gebaratarren menpe hainbat mendetan egondako konderrria da Oñati. Nahiz eta urteroko juntetara gonbidatu gisa joan, ez zuen inongo probintzian parte hartu izan 1845. urtean Gipuzkoara anexionatu zen arte.

Baina ez zen egun bakar batean hartutako erabakia izan, hamarkada askotako gorabeheren amaiera baizik.

Azpimarratzekoa da Oñatik Arabarako probintziarekin Gipuzkoarekin adina muga duela, Arantzazura igotzerakoan garbi ikusten denez, eta Nafarroa ere Aizkorritik gertu dugula. Bestalde, gure euskarazko hizkerak bizkaitar kutsu nabarmena duela gaineratu behar da.


Antzerki honetan, oñatiarrek azaldutako arrazoiak ezagutzeko ditugu, baita Gipuzkoarekin bat egiteko adostutako hiru baldintza nagusiak ere. Auzotarren zein kaletarren ordezkariak beraien iritzia eman zituzten udalak antolatutako batzarretan, eta sarritan eztabaida sutsuak izan ziren Gipuzkoan sartzeko erabakia hartu aurretik.

Irailaren 29an Santa Ana aretoan taularatuko dituzte hiru antzezlanak, 19:30etan



‘Oñatiko Zertzeladak’, herriko historiaz gehiago jakiteko

Iñazio Irizarrek ‘Oñatiko Zertzeladak’ liburua argitaratu du. Olaiturri kultur elkarteak irailaren 24an eskainiko dituen hiru antzezlanak eta iazko jaietan taularatu zuten ‘Lantzean behin’ (Arantzazuko eta Oñatiko literaturari zein musikari eskainitako omenaldia) jaso ditu bertan. Batez ere, *Kilometroak-2017* egunean Oñatira etorriko diren bisitariei dago zuzenduta, baina edozein herritarrentzat da interesgarria, noski. Txokolateixan dago salgai liburua 6 eurotan, eta irailaren 24ko emanaldietan ere eskuratu ahal izango da. Liburua erosten dutenek zozketa baterako txartela jasoko dute. Hauxe da saria: Oñatiko Zumeltzegi dorretxean Pero Belez Gebara kondearen logelan asteburua (bi pertsonentzat), afaria eta gosaria barne. Bi sari zozketatuko dira.



Gaztelekuan abestuko du Ruperrek irailaren 22an

‘Guria ostatua’ azken diskoko kantak ardatz hartuta ariko da

Aurretik Iker Martinez oñatiarrak aurkeztuko du bere bakarkako diskoa

Duela bi urte abestu zuen azkenekoz Ruper Ordorikak Oñatin, eta hari entzuteko gogoz egongo dira jarraitzaileak. Ruper bera ere gogotsu dago, aitortu digunez; “iraila hila-bete bizia izaten da Oñatin, eta kontzertu polita atera daitekeela uste dut”.

Guria ostatua izeneko bere azken diskoa ardatz hartuta ariko da Gaztelekuan. Hain zuzen ere, Oñatiko *Guria* taberna zenari erreferentzia egiten dio diskoaren izenburuak, Ruperrek azaldu digun moduan. “Oñatin horrek ez du esplikazio handirik behar! Ostaturaren ideia behin baino gehiagotan aipatzen da diskoan: taberna babesleku moduan, elkarrengat egoteko tokia... Ez neukan argi



diskorako izenburua, eta halako batez konturatu nintzen gure Atzeko Kaleko ‘Guria’ beste herri eta mundutara zabaldu zitekeela. Herri asko eta askotan egon da *Guria* bat”.

Diskoko abestiez gain, beste sasoietako kantu batzuk ere abestuko ditu, jakina, nahiz eta oraindik ez duen abesti zerrenda zehaztu.

Azken urteetan bezala, goi mailako musikariak inguruan dituela ariko da Ordorika, laukotean: Arkatiz Miner (gitarra, biolina eta mandolina), Hasier Oleaga (bateria) eta Lutxo Neira (baxua).

Urte osoan hara eta hona ibili ondoren, gauza berriak sortzen hasita dagoela aurkeztu digu Ruperrek.

‘ITZALEN MUNDUA’

Iker Martinez de Zuazo (*Latzen, Potemkin, Lenao*) oñatiarrak abestuko du Ruper Ordorikaren aurretik. Ekainean kaleratu zuen *Itzalen mundua*, bakarkako bere lehen diskoko abestiak interpretatuz.



AGENDA

09

IRAILA

ODOL ATERALDIA

> **IRAILAK 8 / 17:00**

Enpresagintza fakultatean, 17:00etatik 19:00etara.

MUSIKA

> **IRAILAK 17 / 19:30**

'HIRI GALDUAK'



SAGUZARRAK EZAGUTZEKO IBILALDIA

> **IRAILAK 9**

**Arantzazuko parketxean,
20:45-22:30**

Gipuzkoako Parketxe Sarearen eskutik, saguzarrak ezagutzeko aukera izango dugu. Arantzazuko parketxe inguruan egingo den ibilaldi txikiari ekin aurretik, Kiko Alvarez adituak ugaztun hegalaria hauen ezaugarriak azalduko ditu: orientazio sistema, ernaltze zikloa, hibernazioa, espezie desberdinak... Gainera, gerturatzen direnek, aplikazio bati esker, saguzarrak entzuteko aukera izango dute iluntzen duen bitartean, hau baita saguzarrak behatezko une egokiena. Plaza mugatuak (9437828 94 / 699335183). Prezioa, 5€.



Azken urteak *Hi Exekutibo* taldean eman ondoren, *Hiri Galduak* izeneko proiektua jarri du martxan Josu Calvok. *Paititi* izeneko lehen diskoa hil honetan kaleratuko du eta hilaren 17an Oñatin entzuteko aukera izango dugu. Pako tabernan.

IKASTAROAK

ilunpetan

ARGAZKILARITZA

Hastapena

Ilunpetan taldeak antolatuta. Argazki kamera modu manualean erabiltzen ikasteko. Oinarrizko teknika, kamerak ematen dituen aukerak eta argazkien konposizioa landuko dira. Bi talde egongo dira:

- Urriak 10 / azaroak 28. Asteartero (18:00-19:30) eta larunbat goiz bat. Euskaraz.
 - Urriak 9 / azaroak 27. Astelehenero (18:00-19:30) eta larunbat goiz bat. Gazteleraz. Prezioa: 70€.
- Izen-ematea: 605 753 966 / ilunpetan@gmail.com

ARGAZKILARITZA

Sakontzen

Konposizioari, argiari, kontatu nahi denari erreparatuko diogu. Besteen argazkiak behatuz, gure argazkietan aplikatzeko kontzeptu berriak aterako ditugu. Teknikoki filtroak, flashak eta bestelako baliabideak erabiltzen ikasiko dugu.

- Urriaren 10etik ekainerarte. Astearteetan (hamabostean behin) 19:30-21:00. Euskaraz. Prezioa: 180€.

AUZOETAKO JAIK

> **ATZEKO KALE IRAILAK 8-10**

Egitaraua: www.facebook.com/AtzekoKalekoJaixak

> **SAN MARTIN IRAILAK 15-17**

Egitaraua: www.facebook.com/kasablankokojaixak

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



HITZALDIAK

> **IRAILAK 19 / 17:30**

'ONGIZATEA' / 'EL BIENESTAR'

Pake Lekuk antolatuta. Hizlaria: Lourdes Igartua Dorronsoro, hazkuntza pertsonaleko aholkularia. Pake Lekun.



PAKE LEKUKO KASTAROAK

2017/18 ikasturtean Pake Lekuk antolatuko dituen tailerretan izena emateko epea irailaren 24an. Ikastaroak: **Bitxigintza, Areto dantzak, Euskal dantzak, Euskara, Informatika** (KZ Gunean), **Irakur Taldea, Marrazketa** (akwarela...), **Memoria tailerra, Orratz lanak, Punttoa, Solfeoa** eta **Yoga**.

HERRIKO BOLO TXAPELKETA

> **UZTAILAK 17, San Martin zuhautzian, 16:00**

Ohi baino lehenago jokatu da aurten herriko bolo txapelketa, Kilometroak jaia dela eta. Hilaren 17an izango da, 16:00etan hasita, Kurtze Baltz elkarteak antolatuta. Herritar guztiei irekia. Sari ugari egongo dira.

GOGOAN HARTZEKOAK
HAURREN DANBORRADA Irailak 16
HAUR DANTZARIEN EGUNA Irailak 17
ARTZAIN TXAKURREN TXAPELKETA Irailak 24

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Liburua

"Chema Madoz"



Liburua

"Pirineos, tristes montes"



Liburua

"Antxiñako Zubillagari..."



Animazio filma

"Kubo y las cuerdas mágicas"



Komikia

"Indiara bidiaia"



Haur liburua

"Aventuras y desventuras..."

MERKATU TXIKIA

- > **ORTUZABALA** Kontsumo Taldeak botatzeko duzun baina ondo dabilen hozkailu bat gustora hartuko luke. Geu joango ginateke bila. Tel.: 682 621 633
- > **KLASE PARTIKULARRAK** Esperientzia handia duen irakasleak klase partikularrak ematen ditu udan eta urte osoan. 653 718 030 / 943 782 843 (Jaione).

GUARDIAKO FARMAZIAK



- ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16**
Irailak 6, 8, 9, 10, 12, 14, 22, 23 eta 24. Urriak 3.
- IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22**
Irailak 25, 26, 29 eta 30. Urriak 4 eta 5.
- GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58**
Irailak 18, 19, 27 eta 28. Urriak 1, 2, 6, 7 eta 8.
- JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28**
Irailak 7, 11, 12, 15, 16, 17, 20 eta 21.



Atzeko Kale 6
Tel.: 943 04 50 66
www.klaumoda.com
 **Klau**



Oinetakoak, Moda eta Osagarriak

DESKONTU TXARTELA >>

5€

Udako kontsumo ezarritako bezeroentzako. Bakoagatik 17/09/15etik 17/11/15era soilik oinetakoak eta. Erri do herri eskaintza bezeroen pabatu.

Plaza nagusia (II)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Aurreko atalean esaten genuen bezala, XIX. mendean plaza berria egituratu zenetik gaur egunera arte, era askotako denda, taberna, kafetegi, banku, bulego, eskola eta elkartek eduki dute euren egoitza eta lan-lekua orain **Foruen enparantza** deitzen den eremu zabal horren inguruan. **Hutsune bat baino gehiago egongo dela jakinda ere**, horietako batzuk sailkatzen eta izendatzen saiatuko gatzaizkizue.

Kafetegiak eta tabernak

Kafe zaharra: Emeterio Madinabeitiak 1871n Ubao erreka gainean jasoarazi zuen etxearen beheko aldean kokatu zen 1920ko hamarkadara arte. Azken hogeita hamabost urteotan *Pago-Usa* ehiza eta arrantza elkartek darabil.

Garaikoetxea kafetegia: gerra aurretik hasi eta ondoren ere urte askoan egon zen plazako ezkerreko arkupeetan. Oñatiko kaferik handiena eta dotoreena zen orduan, terraza eta gozotegiarekin, batez ere herriko jauntxoek topalekua. Oso ospetsua egon zen hango *Peregrino* izeneko pastela.

Txurruka taberna: San Migel elizaren absideari erantsitako eraikinean luzaroan eten barik dirauena. Gerra aurretik jarri zuten **Florentina** eta **Maritxu Madina** ahizpek eta denbora askoan jarraitu zuten arduradun gisa. Orduan parroquia zen lokalaren jabea. Harrezkero makina bat tabernari desberdin pasatu da Txurrukanetik.

Oñati eta Arkupe taberna-kafetegiak: elkarren ondoan, aurretik Garaikoetxeak eduki zuen solairuan, erdibana banaturik. Oñati tabernak Arkupek baino lehentxoago atondu zuen bere negozioa. Biek dute terraza zabala arkupeetan nahiz plaza aldean.

Jostunak, oihal- eta arropa-dendak

Telesforo Letamendi sastrea eta ondorengoak: plazako 7. zenbakian, arkupeetan, jarri zuen Telesforok jostundegia XIX. mendean hondarrean; **Kornelio** semeak 1950era arte jarraitu zuen lanbide horretan; hura hil zenean, jantzi-denda gisa jardun zuten familiakoek beste hainbat urtetan, 1970etik aurrera *Yokin* izenaz umeentzako arropa-denda legez. Geroztik sendikoak ez diren beste merkatari eta bulegari batzuk ere baliatu dira lokal horretaz.

Kandido Letamendi, Malen Zelaia eta ondorengoak: hauek ere, hurrengo zenbakian eta 1921etik aurrera, arkupeetan eduki dute jantzi-denda ezaguna, duela gutxira arte. Kandidoren semea, **Joxe Mari**, sastre moduan ere aritu zen; gerora azken honen andrea **Karmen** eta **Juan Luis** semea eta bere emaztea egin ziren dendaren kargu. Oraintsu merkatari txinatarrek bazarra ireki dute bertan.



Foruen Enparantza XX. mendean hasieran. Eskuman **Merkiena** dendaren ate bat.

Merkiena oihal-denda: Txurrukaneko arkupeetatik Zazpibidetarako ertz horretan izan zuten **Odriozola-Nazabal** sendikoek tela-piezak saltzeko denda. Lokala San Migel parrokiarena zen, elizari itsatsitako beste negozio eta etxebizitzak bezalaxe. Gerratekoan alde egin behar izan zutenean, dendako jenero guztia konfiskatu egin zieten militarrek 1936ko udazkenean. Merkienako familia hura ez zen sekula Oñatira bueltatu.

Bankuak

Banco Guipuzcoano zeritzanak ehun urte pasa iraun du izendapen horrekin plazako izkina batean, 7. zenbakian. Duela gutxi **Sabadell** bankuak bereganatu du, eta orain horrela deritza toki berean dagoen diru-etxeak.

Banco Vizcaya izenekoa aurrekoaren parean egon zen gerraosteko zenbait hamarkadatan, **Merkiena** oihal-dendak erabilitako lokalaren zati batean. 1960 inguruan, Kale Zahar aldera, **Bujero** taberna egondako tokira aldatu zen eta hor dirau oraindik sigla luzetxoagoekin.

Banco San Sebastián ere kokatu zen epe laburrean plazako arkupeetako behekalde batean, luzaroan Kale Barriko hasieran jardun ondoren. Jatorrizko eraikin hura eraitsi egin zuten, oraingo Portu kalerantz doan kale-kantoia zabaltzeko.

Caja Rural da arkupe horietara etorri den azkenengo diru-etxea.

Estankoak

Tabakoa eta loteria banatzeko estankoak, jakina denez, estatuaren monopolioak dira eta baimen berezia behar izaten da produktu horiek saltzeko orduan. Plaza aldean bi estanko egon dira azken ehun urtean, gutxienez.

Estanko zaharra: plazaren goi aldean zegoen, arkupeetako denda batean, Ugarte familiaren ardurapean. Gerrateko zurrubiloan, baina, hartarako lizentzia kendu zieten agintari berriek 1936ko udazkenean. Gerraostean beste era bateko gaiak saldu behar izan zituzten **Kontxita** eta **Maria Anjeles Ugarte** ahizpek: poltsak, opari-gaiak edota jostailuak. Geroztik beste erabilera batzuk izan ditu Zuluetatarrak lokal horrek: Oñatiko turismo-bulegoa eta beste opari-denda bat, adibidez.



Plaza nagusiaren egitura berria 1871an.

Irizar estankoa: *Merki*ena denda egondako lokalean jarri zen gerra ondoren. Santos Irizarerri eman zitzaion hartarako baimena. Harrezkero Irizar-Zumalde familiakoek jarraitzen dute bertan. Gaur egun berezitate bi zatitan banatuta dute negozioa: batean tabakoa eta paper-denda, eta loteria bestean.

Zapatariak eta zapata-dendak

Ibarrondotarrak aspalditik aritu ziren zapatari-lanetan plaza-ko 10. zenbakian, orain egunkariak, aldizkariak eta liburuak saltzen dituzten dendan. Roke Ibarrondo izan ei zen sendiko lehen zapataria Oñatin. Haren bi seme, Felix eta Nikolas, Bilbora joan ziren ofizioa hobetzera lau urtez. Felixek alokatu zuen arkupeetako lokala eta Nikolasek Kale Barrian jarri zuen berea. Zapatak konpondu ez ezik saldu ere egiten zituzten garai batean plazakoan. Familia honetako kide askok musikari moduan ere hainbat belaunalditan jardun dute eta badihardute.

Beste aldean, Txurrukaneko arkupeetako ezkerreko ertzean, San Migel parrokiak utzitako tailerrean, sakristau bat baino gehiago aritu da XX. mendean zapatariari gisa: Joxe Idigoras edota Juanito Kortabarria, esaterako. Gerora izozki-denda bat eduki zuen bertan Joxe Mari Martín Barberok.

Ile-apaindegi, gozotegi, okindegi eta beste

Txurrukaneko arkupe horietan, ezkerretik jarraituta, hurrengo atean ere negozio ugari kokatu dira gure gogoenan: gerra aurretik hasita, Anjel Iriarte Panpott luzaroan aritu zen barbero-lanetan; pertsonaia bitxi eta ezaguna zen herrian, ile-apaintzaile izateaz aparte, txistulari ere baitzen.

Panpotten barberia izandako toki horrek izan ditu beste era-biltzaile batzuk ere: Madinatarran Kerizti deituriko gozotegia hainbat urtetan, eta ondoren Ogi barri izeneko okindegia, besteren artean.

Oso oker ez bagagoz, hor inguruan eduki zuen gerra aurretik bere lokala Luis Codina argazkilaria ere. Ez zen, nonbait, fotografo erabat profesionala, baina sasoi hartako zenbait argazki interesgarri zor diogu oñatiarrok.

Erabilera gehiago ere izan dute Foruen enparantza plaza honen bueltan kokatu izan diren denda, txoko eta solairuetan. Hurrengo atal baten emango dizuegu horien berri.





ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

Kontu kontari

UGASTEGIKO ZURITZAILLIA

Ugastegiko zuritzaillia egun batian abadetxera fan zan hango sukaldia eta komuna zuriketara. Horretan jardun eben egun danian eta gaba egin zanian lanok orainddiok akabo barik egoenez, bertan lolekua eskatu eben. Amakasiak erantzun otsan abadetxian bi kuarto besterik ez egozela, eta bere etxera fateko.

Zuritzailliak abadetxekuen borondate eskasa ikusitta, hasarratu egin zan, eta, gogoz kontra bazan be, Ugastegi aldera abixau zan, *-fan hadi Ugastegiraiño bixar goizian berriz etorteko!*- esanaz bere artian. Alde egin aurretik, baiña, sutako hausputa amakasiaren ohian sartzea akordau xakon.

Hurrengo goizian berriz be agertu zanian lanok egittera, amakasiak haserre eraso otsan:

- *Atzo etxe guztian ibilli ziñan eta enredau nostazun gauza guztiak, hausporik be ez tot topaitten sua ixuketako!*




Eta igeltseruak erantzun:

- *Ez zure ohian lo egin bazeu!*

Zuritzaillia: igeltserua

Asmau

Berba honeittako zein ezta *sakapon* edo *sapakon* berbiaren sinonimua?



Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|-------------------------------|--------------------------------|
| 1. Iratzarri | A. Mugitu |
| 2. Esegi | B. Jo, bizkarra berotu |
| 3. Ingiratu | C. Galdetu |
| 4. Ikara egin | D. Burua arindu |
| 5. Jare (ameti) | E. Eseki, zintzilikatu |
| 6. Burua kaskaldu edo enredau | F. Moldatu, konpondu, prestatu |
| 7. Ittendu | G. Esnatu, itzarri |
| 8. Konfundiu | H. Ukatu |
| 9. Egurtu | I. Utzi, onartu |
| 10. Ezeztatu | J. Erratu, okertu |

EUSKERAZ EGOGI

Zela geratu dira? Bi eta bi

Kirol emaitzetako bardinketak adierazterunzkuan ezin da esan izenburuko esaldixa gaizki daguenik, baiña bai goguan hartu biharko geke hori esateko **-na** atzizki banatzaillia dakogula eta bera ebaltia egogixagua litzakiela. Orduan:

- ***Biña*** geratu dira
- ***Hamabiña*** oiazienian Irujok min hartu eben.
- ***Zela doiaz? Husna*** orainddiok!
- ***Kaikuk eta Orixok hiruna bandera*** irabazi dittue aurtengo denboraldixan.
- ***Zela doia partidua? Hogeita zazpiña*** doiaz eta bigarren zatixa jokaketako.

Dana dala, zentzu berian 'parra' berbiarekin sortutako hainbat lokuziño be ebalten dittugu, bestiak beste, parra egin, parra geratu, parra fan, parra egon.

- ***Parra*** geratu dira.
- ***Parra egin*** daue.
- ***Zein doia irabazten? Parra*** doiaz.
- ***Zer egin xok Aloñak?*** Kanpua irabazi eta etxian galdu. ***Parra*** egin xok orduan.



Arantzazu 1940-1950eko hamarraldian

Aspalditxoko argazkixa izan arren, ezagun da, bai, erakusten doskun paisajiori Arantzazu dala. Gerra osteko lehenengo hamarkadan ataratako fotografia dogu. Laister, baiña, 1950etik aurrera, majo aldatuaz fango ziran elizia, kolejixua eta inguruak. Elizia zihero barriztau zan: zaharra bota eta gaur egun ikusi geikien basilika modernua jaso zan ixa hogei urteko lanaldi luze, nekoso eta korapillatsuan. Eta harrezkero be euki dittu beste ikutu eta aldakuntza batzuk.

Gerora, pelotaleku, kolejixo eta aparkelu barrixak haruntzatxuago modutu ahala, argazkixan eskumaldian agerketan diran erai-kin batzuk epe desbardiñetan eretsi egin zittuain. Komentuari be, nahiz eta kanpotik antzeko itxuria mantenidu, hainbeste denporan, barrikuntza eta birmoldaketa ugari erantsi otsain barrutik. Aurrekaldian daguen hospederixiak kanpotik nahiz barrutik izan dittu aldaketa sakonak; eta eskumarago agiri dan Goiko Benta ostatu-jatetxiari barrutik egin xakon kanbixorik nabarmenak.

Gerra ondorengo urte latz eta triste hareittan be faten zan jentia Arantzazu, Aloña eta Urbixaruntza. Ez eguen gaur aiñako kotxe eta komenetzariak, baiña oiñez edota Oñatiarreneko autobusetan, ttarra-ttarra, igoten euen goraiño. Erlijiñuak inddar eta eragin izugarrixa eukan sasoi hareittan. Aittaketako modukua da 1946ko zemendixaren 16xan Oñatiko kaletik Arantzazuraino eratu zan peregrinaziño famaua, gizaldi bat lehenago egin zana gogoraketako: izan be, 1834an, lehenengo gerrate karlistan, Arantzazu erre egin euen liberalak eta Amabirjiñiaren imajiña Bidaurretako elizan egon zan hamabi urtian. Kixkaldutako eta zela-baitt konpondutako eliza haretara 1846xan Andra Mariren irudixa bueltau euenian, millaka oñatiarrek hartu euen horretan parte, mende bat beranduagoko peregrinaziñuan gertatu zan letxe.

Fotografixako mendixak eta basuak, normala danez, aldatu dira gutxien. Aurrez-aurre dittugu Uztao eta Aitzabal tontor zorrotzak eta atzerago Bitoriano Gandiaga poetiak hainbeste maitte eben Artasoko pagadui magikua. Etzan Arantzazuko fraidia bakarra izan, jakiña, paraje menditsu hareik estimaitten. Oñatiko eta beste leku batzuetako makiña bat herrittar saiaketan zan goialdeko bakardadian billaketan, hala moduz, beherago topaitten ez zittuan babesa, lasaittasuna eta bakia. Gerran galtzaille suertau ziranak, batez be.

J. E.

Argazkixa Donostiako *Manipel* enpresiak atara eben 1940-1950eko hamarkadan, Oñatiko hamar fotografixaz osotutako sorta politt batian. Guri Iñaki Galdos adiskidiak eskuratu dosku. Milla esker!

Oharra: Mari Anjeles Urteagak ziurtau doskunez, fan dan garagarrilleko (uztaila) katekisten argazkixa San Martinen atarata dago 1955eko garagarrillaren 16xan; eta, bere ustez, goixeneko illaran eskumako azken aurrekua Juanita Uribetxeberria izan leike, baiña eztago hain seguru. Eskerrik asko Maria Anjeles eta Anton Urteagari!



grupo
amuebladora
mondragonesa



¡Siguenos en
FACEBOOK!



Zure etxerako behar duzun guztia!



centro hogar MUEBLES

ZIGARROLA 1

TEL.: 943 71 10 12

ARRASATE



ZERKAOSTETA 3
TEL.: 943 71 10 11



ZIGARROLA 1
TEL.: 943 79 15 03

